ARGIA



JOSE MARI IPARRAGIRREK 200 URTE

XIX. mendeko *rockstar* baten arrakasta eta gainbehera

40-43. orriak

#2.697 | 2020 / 08 / 02 | 3,90 €



Nazien aurka aritu ziren zuberotarren historiaz

12 I ROBERT ELISSONDO



Indartu egin nahi dute abertzaleek Elkargoan

22 I POLITIKA



"Belarriprest-ek konpromiso txikiagoa eskatzen du, errealistagoa da"

28 I PELLO JAUREGI

Amul been nit ku leegalul
inor ez da ilegala

ARGIA

Artikulu hauek erosita ekarpen ekonomikoa egingo diezu **Mbolo Moye Doole**ren erresistentzia kutxari eta **Argia**ri.
Atera aldarria kalera euskaraz eta wolofez!



15€*
KAMISETAK



8€*
POLTSAK

14€*
PAPE NIANG
HASIERA BERRI BAT
LIBURUA





24€*
JERTSEAK
4 KOLORETAN

Eskaerak egiteko sartu: **AZOKA.ARGIA.EUS** edo deitu **943 37 15 45** telefonora

*Bidalketa gastuak 4€

ARGIA

2.697 zenbakia I Abuztuak 2, 2020

Panorama

04 I ASTEKO ARGAZKIA
06 I AKTUALITATEA
08 I EKONOMIAREN TALAIAN
09 I HUMANITATEAREN UNE GORENAK
09 I EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO ILUSTRAZIOA:
ANTONIO MARIA LEKUONAREN MARGOLANA DANI BLANCOK EDITATUA

Iritziak

17 I DAVID BOU
18 I MAIALEN BERASATEGI
19 I JOXERRA AIZPURUA
19 I UXUE APAOLAZA
20 I AMANCAY GAZTAÑAGA

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

36 I DENBORAREN MAKINA
37 I ARGIA KOMUNITATEA
38 I BIZI BARATZEA
48 I KULTUR-KRITIKAK
50 I ZUZENEKO EMANALDIA
51 I DENBORA-PASAK
52 I ARGI-KONTRA: MARITXU LARZABAL
54 I BERANDUEGI



GORKA RUBIO / FOKU

44 I **BERTSO PLAZAK BERRIZ MARTXAN JARTZEKO AHALEGINEAN**

COVID-19ak erabat gelditu zuen plazaz plazako bertsogintza, lau hilean 500 saioko galera eraginaz. Alarma egoera eten geroztik, osasun bermeak betez bertso saioak antolatzeko buru-belarri ari dira lanean Bertsozale Elkartea eta Lanku. Horiekin eta Jone Uria bertsolariarekin hitz egin du Estitxu Eizagirre kazetariak.

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 I NET HURBIL
Indonesiarrak elikadura burujabetzatik urruntzen ditu gurpilen ekoizpenak
Jenofa Berhokoirigoin

12 I ROBERT ELISSONDO
“Ospitalepeko eta Sohütako makiaren kideak heroi izendatu behar ziren”
Miel A. Elustondo

22 I POLITIKA
Elkargoko instantzietan ordezkaritza azkarra nahi dute abertzaleek
Jenofa Berhokoirigoin

28 I PELLO JAUREGI
“Euskaraldia entrenamendua da, ez partida”
Onintza Irureta Azkune

32 I NAZIOARTEA
Zer gertatu da Israelek iragarritako anexio berriarekin?
Maria Ortega Zubiate

40 I KULTURA
Hamar eszena Jose Mari Iparragirreren biopic bat filmatzeko
Gorka Bereziartua Mitxelena

52 I ARGI-KONTRA I IRUÑA CORMENZANA
“Berealdiko egitandiak bezala landu nuen, Egiptoko artea bezala”
Hedoi Etxarte

OLATUKOOP
EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE GARA

ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

Jabetza
Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea
Lehendakaria
Bego Zuza
Erredakzioa
Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Eizagirre, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga
Diseinua
Maitane Gartziandia
Argazkilaria
Dani Blanco
Produkzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.
Administrazioa:
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte
Salmenta
Idoia Arregi, Karlos Olasolo, Olatz Korta
Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza
Web garapena
Asier Iturralde
Informatika
Iametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua
SS 837-2012
ISSN
0213-909X
Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak
komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonoa
943371545

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Xalbardin baita. 64122 Urruña
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enpresekin batera:

antza KOMUNIKAZIO GRAFIKOA
iametza interaktiboa
ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.

CC BY SA

Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



Sei urtez bertsio ofizialaren aurka

Mexikoko Ayotzinapan desagerrarazitako ikasleetako baten gorpua aurkitu dute, Enrique Peña Nieto eskuindarraren gobernuaren bertsioa gezurtatuz. 2014ko irailaren 26an udaltzainek 43 gazte atxilotu eta Guerreros Unidos talde kriminaleko kideei entregatu zizkieten. Horiek hil eta gorpuak erraustu zituzten zabortegi batean, bertsio ofizialaren arabera. Gorpua zabortegitik urrun aurkitu dute ordea. Gurasoek etengabe bilatu dituzte sei urteotan, eta Mexiko osoan protesta egiteari ez diote utzi. Hala jarraituko dute bi gauza hauetako bat gertatu arte: seme-alabak bizirik aurkitzea edo zientifikoki erailak izan zirela frogatzea.

JOSE MENDEZ AXIER LOPEZ


AN
A DORM
U REGR
ivivo se

PANDEMIAREN KUDEAKETAN HAURRAK JASATEN ARI DIREN DISKRIMINAZIOA ZAILA DA ULERTZEN. KUTSATUAK EZAGUTU DITUGU LANTOKIAN, KANPINEAN, TABERNA GIROAN… BAINA HORIEK GUZTIAK EZ DITUZTE GELDITU, UDALEKU PUBLIKOAK BAI. UMEAK EZ DIRA LEHENTASUN

@mikelgi

MARROIA FAMILIA ETA ZAINTZAILEEK JASANGO DUGU. BERRIZ. HORRELA EKONOMIAK EZ DU SUFRITUKO? BETI BERDINEK ORDAINDU BEHAR DUGU!?

@aintzanemug

UDALEKURIK GABE, BERRIRO ERE HAUR ASKO EUSKARAZ ERLAZIONATZEKO INGURURIK GABE GERATUKO DIRA

@i_zelaia

BESTE KALTETU BAT: LAKUAREN ETA TOKIKO ADMINISTRAZIOAREN ARTEKO HARREMANA. LEHEN GOITIK BEHERAKOA ETA HIERARKIKOA BAZEN, ORAIN ARE GEHIAGO

@Manexagirre

UDALEKUAK IXTEKO JAURLARITZAREN ESKARIA BEREZ GOMENDIOA DELA BALIATUZ, HERRI GUTXI BATZUEK UDALEKU PUBLIKOAK MANTENTZEA ERABAKI DUTE

argia.eus



J ose Ignacio Barinaga, Verter Recycling 2002 enpresaren sortzaile eta jabea.

EITB.EUS

Zaldibarko zabortegiaren arduradunak, inputatuta

ARGIA

Verter Recycling 2002 enpresaren sortzaile eta jabe Jose Ignacio Barinaga, enpresaren kudeatzaile (eta Barinagaren iloba) Arrate Bilbao eta azpiegituraren injeniari Juan Etxebarria atxilotu zituen Ertzaintzak uztailaren 21ean. Hurrengo egunean, Durangoko auzitegian deklaratzeari uko egin ostean, baldintzapeko askatasunean utzi zituen instrukzioa daraman Maria Sanchez-Ortega Durangoko Auzitegiko epailek. Kautelazko neurri gisa, atxilotuek hilean behin auzitegira joan beharko dute eta pasaportea kendu zaie. Zuhurtziagabekeria larriz eragindako giza hilketako delitua inputatu die Sanchez-Ortegak.

Bi auzitegi ari dira ikertzen ea Zaldibarren otsailaren 6an erori zen zabortegian deliturik izan ote zen. Bi langile azpian harrapatu zituen 1,5 milioi tonako zabor-jauziak eta autopistaraino erori zen; hurrengo astean hasi ziren ikerketetan epaitegiak: Durangoko epaitegia ingurumenaren kontrako deliturik ba ote den ikertzen ari da. Hasiera batean atxiloketei buruz zabaldu zen informazioak adierazten zuen bertako epaileak agindu zituela atxiloketak, baina hori gezurtatuz oharra zabaldu du Durangoko Instrukzio Epaitegiko eta lehen auzialdiko epaileak: "Polizia-eremuan soilik sartzen den operazioa da. Gertakariak argitzeko instrukzio eginbideak egitea erabaki duen epaitegi honek ez du atxilotzeko agindurik eman", esan du.

Zaldibarko zabor-jauziari lotutako bigarren auzia Eibarko epaitegia ari da aurrera eramaten: langileen eta pertsonen kontrako deliturik egin ote den ikertzen ari da.

ERANTZUN POLITIKOAK ERE IKERTU DAITEZELA

Jokin Bergara Zaldibar Argitu plataformako kideak adierazi du Euskadi Irratian albiste ona dela: "Sei hilabete igaro dira zabortegia behera etorri zenetik, berandu da, baina badirudi zerbait mugitzen ari dela. Azpimarratu nahi dugu, hala ere, erantzukizun pribatuak ez ezik politikoak ere badaudela, eta horietan ez dela eman urratsik txikiena ere".

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

CBA



ARITZ GALARRAGA

Beste uda bat iritsi da, uda arraroa, atipikoa, ezberdina, baina berdin izango dena kitzikagarria, seguru, uda guztiak bezala –baikortasun une batean harrapatu nauzue, bai–. Eta iritsi dela diot, konplitu baitut udako iniziazio erritualarekin: eskuratu dut aurtengo *Un été avec* liburua, uda ofizialki abiatutzat ematen duena, aurten Pascali eskainia. Pascal, Montaigneren dizipulurik arretatsuena, haren era berean etsairik fermuena –kontrara, Montaignerik gabe ez legoke Pascalik, dio Antoine Compagnonek–. Abuztu pasionante bat daukat aurretik.

Hain zuzen, halako gauzez hitz egiteko erabili nahi nuen zutabe hau, gauza garrantzitsuez, Mercè Ibarz idazleak bere zutabeetan egiten duen modura, adibidez literatura frantsesaz. Baina, nire sorpresarako, zutabe frankofiloa izateaz aparte –hori, ni tartean egonda, ezinbestekoa zen–, aski mitteleuroparra ere atera zait. Izena iragarle zatekeen, ez nuen uste ordea, Stefan Zweigen ondoan, Elias Canetti edota Claudio Magrisekin hainbeste laketuko nintzenik. Horiek liluratu naute gehien, ibilbideek, ezagutzek, irrikek; eta interpelatu, horien gisakorik gurean ba ote dagoen. Neurona ondo estutu ondoren, hautagai posible bat: Carlos Blanco Aguinaga, CBA, Irungo Santiago kaleko 28.enean jaioa, Hendaian "erbesteratua", Mexiko DFn, ikasle Harvarden, *Por el mundo* autobiografiaren lehen liburukian irakur daitekeenez: etxeko giroa, gerra garaia, batetik besterako errantzia, noski literatura –"B*ecause I do not hope to turn again*", T.S. Eliot–. Traba bakarra: ez zuen euskaraz idatzi, ez zen euskalduna, nahiz haur garaian ezagutu zuen: "*dormía con mi abuelo, quien me hablaba vasco*".

Eta, uda iritsi da, ez dut egingo, CBAren harira, gure hizkuntzaren, gure kulturaren, gure miserien gaineko hausnarrik. Pasa dezagun abuztua bakean. Irailetik aurrera ekingo diogu berriz horri. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com



"ZEINEK ONARTUKO LUKE SEME-ALABAK IKUSI GABE HAINBESTE HILABETE EGOTEA?"

SARE HERRITARRA

Euskal presoen seme-alabek urte erdia aita, ama edo biak ikusi gabe daramatela salatu du Sarek. Ia 100 motxiladun haur eta nerabe daude Euskal Herrian eta kartzela batzuetan esan diete abuztuan ere ez dutela familiarteko aurrez aurrekorik izango. Espetxean bizi diren motxiladun umeen egoera bereziki larria dela nabarmendu dute: "Aranjuez eta Picassenteko espetxeetan daude Izadi, Irati eta Ilargi. Oraindik ez dizkiete aurrez aurreko familiarrak eta konbibentzikoak onartu". **2020/07/21**



EKONOMIAREN TALAIAN

Marshall planaren letra txikia



JUAN MARI ARREGI


Bost eguneko negoziazio gogor eta ilunen ondoren, Europar Batasunak akordioa lortu du, eta Espainiako Estatuko presidentearen hitzetan, benetako "Marshall Plana" omen da. Pandemiaren krisia arintzeko funtsak 750.000 milioi euro izango ditu, horietatik 390.000 milioi dirulaguntzetan eta gainontzekoa kredituetan. Espainiako Estatuak –eta Hego Euskal Herriak, dagokion zatian– 140.000 milioi euro jasoko ditu sei urtean, horietatik 72.700 subsidiotan eta gainerakoak kredituetan.

Horiek dira zifra nagusiak, eta horixe da akordioari buruz jakin duguna, hasierako asmoa bilioi bat eurora iristea eta dirulaguntzetarako zati handiagoa bideratzea bazen ere. Batzuk eta besteak, bai "xuhurren taldea" deituriko iparraldeko herrialdeak, nola hegoaldekoak, pozik daudela diote. Garrantzitsuena, ordea, akordio horien letra txikia ezagutzea da. Eta ez da oso bizkorra izan behar murrizketa sozial handiak aurreikusteko gastu ekonomiko horren truke.

Mark Rutte holandarra buru duten xuhurrek argi utzi zuten: dirua bai, baina baldintza askorekin. Espainiako Estatuaren kasuan lan-erreforman sakontzea, gogortzea, eta pentsioen erreforma egitea, ez hobetzeko, baizik eta xuhurrek daramaten harrapaketara egokitzeko, herrialde horiek paradisu fiskalak baitira. Eta konpromisoa –letra txiki horibetetzen den ala ez "zainduko" dutela esan dute.

Beraz, Hego Euskal Herriko zein Espainiako Estatuko langile, pentsiodun, mugimendu sozial, sindikatu eta alderdi politiko ezkertiarrak erronka handi baten aurrean daude: funts hori gehiengo sozialaren eta langileen zerbitzura egongo den ekonomia berde eta solidarioa berreraikitzeko erabiltzea. ●

ANALISIA



Esklabistak epaitu

URKO APAOLAZA AVILA

AEBetan, Ingalaterran eta mundu osoan Black Lives Matter mugimendua esklabotza eta arrazakeria zuritzeari uzteko eskatzen ari da, eta ikusi dugu pertsonaia txit entzutetsuen eskulturak hankaz gora jarrita. Astinaldia hainbestekoa da, ezen *The Guardian* egunkariak berak jakinarazi duen egunkariaren sortzaile John Edward Taylor-ek (irudian) esklabotzarekin izandako harremana ikertuko duela.

Euskal Herrian ere baditugu "filantropo" askoren irudiak eta izenak gure kaleetan, horietako zenbait mundu mailako esklabista handienetakoak izan ziren XIX. mendean. Baina harrigarriro gurean ez da ia kalapitarik sortu. Esklabotza gure gizartearen parte ez balitz bezala jokatu izan du orain arte euskal historiografiak, eta agian horrela segitzen dugu pentsatzen.

Askotan esan izan da ezin direla epaitu egungo begiekin iraganeko ekintzak. Baina kontua da orduan ere epaitu zituztela euskal esklabista haiek. XIX. mendean gizakien salerosketa jadanik ilegala zen, eta hala ere zenbaitek zeregin beltz horretan segi zuen inoiz baino gehiago. 1843ko abuztuan Londreseko Cumberland jauregi erraldoian arabar jatorriko Pedro Jose de Zulueta, Zulueta & Co. sozietatearen jabea atxilotu zuten, esklabotza debekatzen zuen nazioarteko tratatua hausteagatik.

Egungo Liberian, Gallinas ibaian, bandera errusiarrarekin zioan *Augusta* ontzian esklaboak garraiatzeko tresneria atzeman zuten eta aitzakia hori erabili zuten tribunal ingelesek orduko esklabista-klan handienetako bat epaitzeko. Zuluetak Kubako bere senide Julianekin, Pedro Blancorekin eta beste *negrero* askorekin zituen negozioak.

Auzia oso ezagun egin zen, baina azkenean, jakina, absolbitu egin zuten. Hala ere, epaiketa hark erakutsi zuen zein punturaino zeuden sartuta euskaldunak esklabotzaren munduan. Zuluetak bere burua iritzi publikotik defendatzeko epaiketaren ondoren idatzitako liburuxka, akademikoen ikerketa iturri da egun Ingalaterran, esklabotza ezabatzeko borroka politikoaren lekuko paregabea delako. Abuztuko egun hartan "Inkisizioaren eskuetan erori" zela dio, zinikoki, gizakiekin trafikatuz aberastu zen gizonak.

Garaian garaiko mentalitateak ulertu behar dira, noski, eta historialarien lana behar luke hori azaltzea. XIX. mendean asko ziren esklabo trafikoarekin ezikusiarena egiten zutenak, baina asko ziren baita ere haren kontrakoak. Gurean gaia gehientsuen ikertu duen Jose Antonio Azpiazuk Euskadi Irratian zioen bezala: "Ulergarria izan liteke orduan gauza horiek gertatzea, baina gaur egun defendatzea beste gauza bat da". ●



@BIRASUEGI

HAURREK DISEINATURIKO PARKEA

ERRENTERIA. Herriko ikastetxe guztietako eta aisialdi elkarteetako 2.000 haurrek hartu dute parte Errenteriako Txirrita parkearen diseinuan. Lehen aldia da herriko espazio publiko bat umeek diseinatu dutena. Emaitza: labirintoa, ura, eskalatzeko elementuak, egurrezko zirkuituak, toboganak... 4-12 urte arteko gazteek hartu dute parte prozesuan eta Unibertsolandia izena jarri diote parkeari.

ESPETXE BALDINTZAK

6 preso hil dira gutxienez 2019tik Zaballako kartzelan (bat ospitalean, artatzeko atera zutenean). Azken heriotza uztailaren 17an jazo da (baina bost egun beranduago ezagutu da). Hildakoa 23 urteko LFBC arabarra da. Hildako presoak ehunka izan dira azken urteetan Espainiako Estatuko espetxeetan.



Itxaso Zaldua preso ohia espetxeratu dute

ARGIA

2001ean Zaragozan Aragoiko PPko presidente ohi Manuel Giménez Abaden hilketarekin lotuta, Zaldua espetxeratzeko agindu zuen uztailaren 22an Espainiako Auzitegi Nazionaleko Santiago Pedraz epaileak. Zalduak ukatu egin du ETAren atentatu hartan parte hartu zuenik.

ATXILOKETA ETA PROTESTAK

Uztailaren 21 goizean atxilotu zuten preso ohia Hernanin, lanera bidean Goierrirantz zihoala. Epaileak bere erabakia "babestutako lekuko" batek joan den uztailaren 7an egindako deklarazioan oinarritu du. 21ean bertan, protesta jendetsua egin zuten bere jaioterrian, eta hurrengo goizean ere, bere lantoki Beasaingo CAFen, LABeko kideek deituta protesta egin zuten atxiloketa salatzeko, "Errepresioa ez da bidea, Itxaso askatu" lelopean.

12 URTEZ PRESO

2005ean atxilotu zuten Itxaso Zaldua, Tarbes inguruetan (Okzitanian) eta hamabi urte Frantziako Estatuko espetxeetan igarota, kondena amaitu zuenean polizia frantziarrak espainiarraren eskuetan entregatu zuen 2017an. Madrilgo Barajas aireportura iristean libre utzi zuten. Kartzelan zela, seme bat izan zuen Zalduak.



IRUÑA-VELEIA. Auzia argitzeko eskatuz gose greba hasi zuen Gasteizen euskaltzale talde batek, uztailaren 23an. Eusko Legebiltzar berriak "zientziaren bidea aurrera eramateko erabaki irmoa onartzea" da gose grebaren helburua. Epaiketa "benetan eskandaluzkoa" izan dela diote.



OINARRIZKO ERRENTA. NBEk oinarrizko errenta proposatu du munduko 2.700 milioi lagun baino gehiagorentzat, alegia pobreziaren mugan edo azpitik bizi den biztanleriaren herenarentzat. 199.000 milioi dolarretik gorako kostua luke, "estatuek beren gain hartzeko modukoa".



OSPA EGUNA. Guardia Zibilen Batasunak salaketa jarri du Altsasuko Ospa Egunaren kontra, "terrorismoa goratzea" leporatuz. Deialdia debekatzeko eskatu dute. Aste berean, Ospa mugimenduko bi kidek isunak jaso dituzte, iazko Ospa Egunari lotuta zabalik dagoen ikerketa bat salatzeagatik.

INDONESIARRAK ELIKADURA BURUJABETZATIK URRUNTZEN DITU **GURPILEN EKOIZPENAK**

Indonesiako poliziak maiatzaren 26an Junawal Bin Sukino nekazari sindikalista atxilotu izanak kexua eta amorrua piztu ditu bertako nekazari ttipien artean. Beste behin, haien oinarrizko eskubideei tu egin eta multinazionalen mesederako hartu erabakia delako. Bioaniztasunaren errespetuan, belaunaldiz belaunaldi landuriko haien lurren lapurketak geldiarazi nahian dabiltza borrokan, eta jomugan kautxu naturala ekoizten dabiltzan multinazionalak dituzte.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Junawal Bin Sukino nekazari sindikalista preso sartu izanak kexua eta ezinegona areagotu du Indonesian eta batez ere bertako Tebo eskualdean. Nekazarien eskubideen alde dabil aspaldian Junawal eta bide beretik, Indonesiako Gobernuak hitzemandako elikadura burujabetza gauzatu nahian ere ari da. Maiatzaren 26an atxilotu zuen poliziak SPI *Serikat Petani Indonesia*-ko (Indonesiako Nekazarien Sindikatua) lehendakaria, kautxu naturalaren ustiaketan berezituriko PT LAJ enpresaren kontrako sabotajea leporaturik. Enpresa hau RLU Royal Lestari Utama-ren adar bat da. Izen horien gibelean, Indonesia suntsitzen dabilen palma olioaren negozioa gorde zitekeen ederki, baina ez. Berdin -berdin desmasiak egiten dabilen kautxu naturalaren negozioa dugu: Indonesiako PT. Barito Pacific eta ezagunagoa zaigun Frantziako Michelin enpresaren filiala dugu RLU Royal Lasteri Utama.

"2019ko maiatzaren 14an PT LAJen bost ekipamendu erre izana leporatzen zaio. Kontua da gaztigurik gabe PT LAJek burutu lur hartzeak eta laborarien kanporaketak salatzen dituela Junawal burkideak", azaldu dio *mouvementcommuniste.over-blog.com* komunikabideari Sarwadi sindikalistak. Geroztik preso segitzen du eta erregularki milaka herritar dira karrikara ateratzen sindikalistaren askatzea exijitzeko. Sindikalista hau eta besteak ere, Junawalen atxiloketa ez delako ezohikoa, eta intimidazio, atxiloketa, mehatxu edota errepresioa eguneroko ogi dutelako bertako nekazari ttipiek.

Oinarrian, multinazionalak burutu Napal Putih herrixkaren desegitea dugu. Herrixka hau elikadura burujabetza helburu, kolektiboki pentsaturikoa eta antolaturikoa da –eskola, ekoizpen kooperatibak, merkatu propioak, espazio kultural zein erligiosoak biltzen dituen elkarbizitza interesgarria duena–. "Benetako ekosistema autosufizientea" Via Campesina sindikatuaren hitzetan.

MONOKULTURA VS BURUJABETZA

Baina kautxu naturalaren "natural" adjektiboak ez du erran nahi baitezpada modu iraunkorrean egiten denik. Kautxua izan daiteke sintetikoa, hidrokarburotik lortua, edo naturala begetal batzuk ekoiztu latexarekin egina. Bide naturalean dabiltzan multinazionalak, esportaziora bideraturik, monokultura garatzen dabiltza, sekulako eremuak berenganatuz. Indonesia eta Thailandiaren artean, ekoizpenaren %50 segurtatzen dute, 2018ko datu ofizialei segi. Azken hamar urteetan ekoizpena bikoiztu egin da eta bilakaerak tendentzia berean segitu behar luke.

PT LAJek ekoizpenerako baimenak lortu arren, baimen hauek belaunaldiz belaunaldi bertatik bizi ziren nekazarien lurrei buruzkoak dira eta egunetik biharamunera lurrik gabe gelditzen dira laborariak. "Argi uzten du Michelinek begiak ixten dituela: Ekoizteko helburuarekin dabiltzan enpresak laborarien lur-eskubideak zangopilatzen dabiltza. Beste molde batera erranda, garapen iraunkorraren izenean lurren lapurketak legitimatu ditu Michelinek", dio SPI sindikatuak.

Kontua berdez pintatzeak, hots, garapen iraunkorraren izenean aurkezteak amorrazioa handitu besterik ez die egiten. Hain zuzen, 2012az geroztik Tebo eskualdea inarrosten duen gatazkaren oinarrian *Tropical Landscapes Finance Facility* (Paisaia Tropikalen Finantza Mekanismoa) programak finantzaturiko egitasmoak dira. Orotara 95 milioi dolar jaso zituzten kautxu zuhaitzak landatzeko Sumatra eta Borneon. Programa horren parte dira NBEko ingurumenaren arloa eta Munduko Agro-oihangintzaren Zentroa, baita ADM Capital inbertitzailea eta BNP Paribas bankua ere. Ofizialki, modu iraunkorrean dabiltza kautxua ustiatzen. Errealitatea haatik besterik da Via Campesina nekazari ttipien sindikatuak behin eta berriz deitoratu duenez.

Geroz eta gehiago entzuten da zuhaitzen landatzeko beharraz eta helburuaz hitz egiten, tartean multinazionalen ahotik. "Egindako klik bakoitzarentzat zuhaitz bat landatuko dugu" edo "erositako mozkin bakoitzak zuhaitz landatze bat bideratuko du" gisako esaldiak ohikoak bilakatzen ari dira gaur egungo testuinguruan. Zuhaitzak aterabideen artean ditugulako klima larrialdiari aurre egiteko. Baina kontua da landaketa guztiak ez direla onak: edo bioaniztasuna



KAUTXU NATURALAREN MONOKULTURA. LABORARIEI LURRAK LAPURTU ETA MONOKULTURA GARATZEN DABILTZA MULTINAZIONALAK.

errespetatuz egiten da eta emaitza positiboak ditu, edo monokulturan egiten da eta kalteak ekarriko ditu onurak baino gehiago –pestizida eta ongailu kimikoen kutsatzeaz gain, lurra pobretu eta hil egiten duelako–. Gaur egungo multinazionalen mezu berdeak monokulturara bideraturik dira gehiengo handian –eta kautxua edo palma olioa ekoizteko izaten dira, hots Indonesia pobretzen duten ekoizpenentzat–. *Socialter.fr* komunikabideko "Oihan berritze kanpainak, enpresen greenwashing berria?" (*Les campagnes de reforestation, nouveau greenwashing des entreprises?*) artikulua luze eta zabal ari da monokulturaren kalteei buruz. Nola ez, helburua betetzeko tokiko herritarrei lurrak "lapurtzeko" joera aipatzen du kazetariak.

Alta, elikadura burujabetza Joko Widodo Indonesiako presidentearen 2014ko promesen artean izateak esperantza piztu zien nekazari ttipiei. Horrez gain, beste zortzi helburu interesgarri ere zituen finkaturik: lur erreforma, lur gatazken konponketa, agro-ekologia, kooperazioa finantzazioarentzako, tokiko merkatuaren bultzada, baserri munduaren garapena, populu indigenen eskubideen defentsa eta ingurumenaren babesa. 2013an bozkaturiko Laborarien Babeserako eta Botereen Azkartzerako Legea ere dute haien alde, 1960ko lur erreformaren printzipio batzuk berriz jartzen dituelako lehen lerroan, tartean, lur eskubideari dagokionez –1965-1998ko Suhartoren diktadurak helburua alde batera utzi zuen–. SPI gisako erakundeak buru belarri inplikatu dira helburuan: autonomia zerumugan, benetako herrixka antolatuak sortu dituzte adibidez –Napal Putih demagun–.

Helburu agroekologiko, sozial eta ekonomiko hau dute mehatxatzen multinazionalek. *Larelevetlapeste.fr* komunikabideko "Indonesia: Michelinek laborarien lurrak eskuratzen ditu, 'kautxu naturala' ekoizteko" (*Indonésie : Michelin s'accapare les terres des paysans pour des plantations de 'caoutchouc naturel'*) artikuluan argiki azaltzen du SPIko Zainal Fuadek: "Politika ekonomiko neoliberalaren ondorioa dugu egoera hau, gobernuaren arauak zangopilatzen dituzte multinazioanek. Gure baliabide naturalak eta lurrak lapurtzera datoz multinazionalak 'Lanbide berdeak' sortzeko estakuruarekin, baina errealitatea da autoritarioak direla eta gure oinarrizko eskubideak zangopilatzen dituztela". ●





Robert Elissondo

ZUBEROAKO MAKIAREN JAKILEGOEI TIRAKA

OSPITALEPEKO ETA SOHÜTAKO MAKIAREN KIDEAK HEROI IZENDATU BEHAR ZIREN

Bigarren Mundu Gerla garaian, zigor operazio makurra gatzatu zuten alemanek Zuberoako Pettarrako Ospitalepean. 1944ko ekainak 27 zituelarik, aleman soldaduek mendiz herria guziz gehiena inguratu eta makien lagungoan ziren etxeak ikertu zituzten. Arakatu eta, zenbait, deboilatu ere. Hilak izan ziren, preso hartuak, kontzentrazio esparru edo zerrategietara eramanak. Gertakariaren berri xehe eman digu egun hartan arrestatuetariko baten semeak.

MIEL A. ELUSTONDO ZALDI ERO

1939-1945, Bigarren Mundu Gerla aroa. Gerla sartu zen Zuberoaraino ere.

Ipar Euskal Herria, eta Biarno ere, espainiar gerla zibilarekin sartu ziren gerla giroan. 1936tik aitzina muga zerratu zuten, baina iheslariak igaraten hasi ziren, lehen hegotik iparrera, eta, gero, kontrako bidean. Ordu horrek baditu bere ezaugarriak ere. Batetik, gerla izugarrizko drama izan zen, eta dramarekin batera, jendetza nahasketa handia. Zuberoan, adibidez, lehenik espainiarrak igaran ziren, erran nahi baita, nahinongo errefuxiatu eta iheslariak. Baziren euskaldunak ere, naski. Haien ondotik, 1943tik aitzina, alemanak sartu ziren hemen. Aleman zenbait, luzaz egon ziren Xiberoan, eta zenbaitek euskaraz ikasi zuten. Ez anitzek, baina zenbaitek. Eta, bestalde, aleman armadan baziren errusiarrak ere, eta, horrela, zuberotarrek jende mota ezberdinak kausitu zituzten beren lurretan. Baziren belgiarrak, jugoslaviarrak, austriarrak, poloniarrak eta beste!

Gerlan Zuberoaraino eta, oroz gain, Ospitalepea herri ttipira.

Gurs zerrategiaren auzotasunak ekarri du Ospitalepea gerla giroan sartzea, 1939ko apirilean. Zerrategiaren zabaltzearekin, doi. Gurs huilan da, hurbil: lau kilometro badira Gurs herritik Ospitalepera heltzeko; lau kilometro eta erdi, berriz, zerrategiaren sartzetik. Huilan zen, beraz, eta hemengo herritarrak hasi ziren ikusten espainiar errepublikano errefuxiatuak harat eta honat, bidean, kamioiz edo oinez. Apezek eta eskuin

Robert Elissondo

OSPITALEPEA, 1962



Irakasle da, eta Ikerzaleak taldeko kide, Zuberoako historia idatzi gabekoa azalera ekartzea baitu xede, izan dadin Lehen Mundu Gerla, Ospitalepean Bigarren Mundu Gerla garaiko alemanen zigorraldia edo Mauleren historia gordea. Euskaldun sortua, eskolak has eta buru frantsestu zuen, harik eta hogeitsu urtetan berreskuratu zuen arte. Gure estandarra gabe, zuberera batuaz da mintzo. Irakasle da Maulen, eta, gogotik entseaturik, bi ikasturtez euskaraz irakatsi zuen Historia. Bere burua trebe eta abil ikusten hasia zelarik, ikastetxeko zuzendaritza aldatu, eta orduantxe finitu Elissondoren euskara eskolak.

aldeko prentsak gorri lanjerosak bezala aurkeztu zituen, baina, nahiz nekezian, jendeek ikusi zuten zerrategikoak ez zirela errefuxiatuak baizik. Bestalde, 1939ko irailean, gerla piztuaren abisuarekin, Ospitalepeko hamar bat gizon armadarat joan ziren eta haboroxeak preso egon ziren bost urteko denboran. Oro bizirik sartu ziren berriz Ospitalepera, nahiz bat eri sartu zen: gure osaba zena. 1961ean zendu zen.

Okupazio garaia etorri zen gero... Zein urtetan?

Bi garai badira hor, 1940tik 1944ra. 1942 hondarreraino, bururaino, Zuberoa eta Biarno eremu libroan ziren. Halarik ere, hobe litzateke erratea eremu ez okupatuan zirela. Bizia gaitz zen, gizon presoneren mentsa edo faltarengatik, ororen gainetik. Jendeek kasu egiten zieten inork erraten zituenei. Susmoa eta lotsa giroa zen nagusi. Bistan dena, Gurs zerrategiaren auzotasunak bazuen eraginik. Zerratu gehienak aleman juduak ziren. Zenbaitek baimena ukaiten zuten zerrategitik ilki eta elikadura biltzeko. Aurkitu ditut Ospitalepeko zaharrak, oroituz judu elibat baserri batetik bestera joaten zirela arrautza, esne nahiz ilar galdatzen, sosaren edo lanaren truke. Zenbait, ekuratzen ziren Lasserre ostatuan, eta hango Marie-Louise Lasserre Davancensek erran zidan saltsa gizenak prestatzen zituela judu haientzat, goseturik baitziren. Ostatuan juduak kausitzen ahal ziren eta, haiek bezala, baita zerrategiko zaintzale elibat ere, han alojatzen baitziren, eta han bazkaltzen baitzuten.

Eta 1942tik aitzina?

Bigarren garaia duzu: alemanen okupazio denbora, 1943ko hatsarretik 1944 agorrilera artekoa. Gure herri ttipian, Ospitalepean, alemanak ez ziren etxeetan sartu, baina Zuberoan eta Biarnon bezala gaizkitu zen giroa gure herrian ere. Isilik egon behar zen, kanpotiarrei mesfidati, duda baitzen kanpotiarrak, eta auzoak ere!, adiskide edo etsai bazirenez. Bistan



dena, iheslariak ere baziren, baina haiek gauez igaraiten ziren, eta ez herrian berean, baina Barkoxen, kantuko Larraja auzogunean. Iheslari elibat herriko etxeetan egon ziren gorderik aste edo hilabete zenbait. Ezagutzen dugu horietarik izen zenbait: Castro, Baionako judu familia famatua, edo Marcel Pilet, Girondako lan bortxatuetako iheslaria. Baina haboro badira.

Dena dela, okupazioarekin batera, erresistentzia ere izan zen Zuberoan. Makiak, alegia. Jean-Louis Davanti irakurririk dakigu bi maki ere izan zirela...

Bai, xuxen da. Makiak 1943an hasi ziren antolatzen, eta departamenduan lehen erresistentzia egintza Maulen izan zen, urte hartako martxoan. Gazte batek Alemaniara joan behar zuen tren baten peiak [balaztak] moztu zituen Mauleko geltokian. Alemanen kontra atake ttipiak egiten hasi ziren: kamioien edo autoen kontra tiroka, janaria ebasten eta horrela. Baina hartu dute pilotu aleman bat preso ere! Izatez, makiak gizon gazte gordeen taldeak izan ziren. Emeki-emeki antolatu ziren, armada bat bezala, zeren eta armak ere bildu baitzituzten. Sortzez zinez jende ezberdina bazen makietan. Baziren herritarrak, baziren Mauleko langileak gauez jiten zirenak, lan bortxatuetako iheslariak, alsaziarrak, Gurs zerrategiaren zaintzale ohiak, jendarmeak, armadako aintzindariak. Emeki, makien kopurua emendatu da ehun eta haboro heldu arte 1944ko maiatzean. Egia da bi maki izan zirela Zuberoan. Bata Pettarra honetan, Basaburuan bestea. Ospitalepean, adibidez, Franc Pommies talde bat antolatu zen. Erakunde hori armistizioaren frantziar armadaren barnean sortu zen. Alemanek Frantzia osoa okupatu zutelakoz, aintzidari zenbaitek nahi zuen etsaiaren kontra jarri eta aliatuen lehorreratzea lagundu. Ospitalepeko taldea Béguerie eta Jancène jaunek antolatu zuten, eta armadaren erreserbako aintzindariak ziren biak ere.

Zergatik hautatu zuen Pettarrako makiak Ospitalepea?

Bazterreko gune baitzen, oihan anitzekin. Erraz zen gordetzea, baina bidea bazen eta baserriak makiari elikadura ekarri ahal ziezaiokeen. Bi aintzindariek, bestalde, herritar elibat ezagutzen zuten, ehizagatik, ehiztari baitziren. Herrian, Lasserre ostatua batzarri gunea zen makian sartu nahi zuenarentzat. Makiak Ospitalepeko bost etxetan alojatzen ziren, taldeka; hamar-hogei gizon artean baziren. Mahourat etxea zen aginte gunea, ibar oihantsu baten zolan kokaturik baitago. Auzoko Kosine etxeko lur bat jausgailu eremu bilakatu zuten, eta makiek bizpahiru aldiz armak errezibitu zituzten jausgailuz, Londresekin harremanetan baitziren.

> ***“Makiaren kideak fidelki biltzen ziren urte oroz Ospitalepeko oroitarriaren aitzinean, baina auzapeza baizik ez zen han herritarrik. Dolu ziren herritarren sufrimenduaz, baina ez ziren haiekin mintzatzen”***

Nola ziren harremanetan Ospitalepeko makiak Londresekin?

Jausgailuak abisatzeko, BBC irratiak mezu kodetuak igortzen zituen erra-

ENE HERRIA

“Harreman pertsonal anitz baditut Ospitalepeko historiarekin gerla denboran. Ospitalepea ene herria da, eta jausgailu eremua aitaren etxearen aitzinean zen. 15 urte zituelarik, aita zena alemanek arrestaturik izan zen bere aitarekin batera. Aita zenaren jakilegoa bildu nuen eta idatzi. Ospitalepeko errepresioaren 60. urteburua huilandu zenean, auzo laborari batek eta biok jakile oraino bizirik guziak kausitu genituen eta beren jakilegoei esker, kontakizuna idatzi”.

ALBERT LASERRE

“Traidore bat bazen alemanak lagüntzen. Bazekien zein etxek aterpetu zituen makiak eta bost etxeren izenak eman zituen : Albert Lasserre, Gurseko laborari baina Ospitalepe kantuan ari zena lanean. Alemanek huts baten ondorioz eho zuten, hil, Albert. Lasserre izeneko etxe bat, non makiak biltzen ziren, ikertzen ari ziren, baina beste Lasserre etxe bat zuten xede. Gertakari ezin sinetsia da: anaia tirokatu zuten eta, hutsaz oharturik, barkamena galdatu zioten arrebari eta bedezia jinarazi, lagungoa. Baina bedezi hori berantegi jin eta hil zen Albert”.

OSPITALEPEKO MAKIEN ETXEAK

“Alemanek Puyade, Mahourat, Larlus, Espel, Lasserre Davancens... arrestatu zituzten beren etxeek makiak aterpetu baitzituzten. Mahouraten etxea zen manamentu edo aginte gunea. Horregatik, krudelki jo zuten Mahourat, eta su eman etxeari. Orain guziz arraberritua duzu. Arrastuetarik bi, Astarrage eta Pilet, lan bortxatuetako iheslariak ziren eta Asconada, aldiz, mugalari. Kontzentrazio zerrategietan hil ziren”.

naldi komiko edo bitxi itxuran. Adibidez, 1944ko maiatzeko jausgailua eroriko zela jakinarazi zuten erranez: «*Le homard est jaloux de l'écrevisse*», erran nahi baita, «Abakandoa jelos da ibaiko hamarratzaz edo karramarroaz». Mezu horrek erran nahi zuen makiak behar zirela gauez eremu hartarat joan, eta behar zituztela argiak prest izan hegazkinari erakusteko non behar zituen edukiontziak jausgailuz aurtiki. Baina ekainean makiako nagusiak lotsa izaten hasi ziren, beldurtzen. Bazen jende sobera makian. Ez zuten kezuloa begiratzen ahal, ez zituzten jende denak ezagutzen eta ez denei konfiantza izaten ahal. Euskaldunak euskaraz mintzo ziren elkarri, sekretuak begiratzeko. Sasoi hartan, bestalde, Frantzia osoan Oradour sur Glane-ko sarraskiaren berria hedatu zen. Ospitalepeko herritarrak lanjeran ziren, alemanen errepresioa paira zezaten. Horrela, ekainaren 23an makiek erabaki zuten Ospetalepe utziko zutela eta barreiatuko zirela inguruko eremuetan.

Eta, doi, ekainaren 27an gertatu zen zigor operazio handia!

Bai. Makiek bazuten arrazoi mesfidatzea. Alemanak inguratze eta arrestatze operazioa ari ziren prestatzen. Egun hartan, goizean goizik, kamioi lerroak hasi ziren herrira huilantzen. 400-600 soldadu alemanek herri osoa inguratu zuten eta emeki-emeki erdirat arte hasi ziren aitzinatzen. Non-nahi ikertu zituzten makiko kideak, "terrorristak" deitzen zituztenak. Baina eskapatu ziren! Beraz, zibilen kontra itzuli zuten beren kexua. Hemeretzi arrestatze egin zituzten Ospitalepean eta kantuko Sohütako etxeetan. Bederatzi lagun deportatu zituzten, zortzi hil. Gizon deportatuak Mauthausen (Austria) kontzentrazio zerrategietan hil ziren. Hiru emazte Ravensbruckera (Alemania) eraman zituzten: Marie eta Marie-Louise Lasserre Davances ama-alabak, eta Aimée Larlus, haien auzoa.

Marie-Louiseren testigantza bildu zenuen zuk...

Bai. Marie-Louise François anaiarekin batean sartu zen erresistentzian. Haren lana zen makian sartu nahi zuena errezibitzea, eta BBC irratiak hedatzen zituen mezu kodetuak behatzea. 1944ko ekainaren 27an, alemanek beren ostatuko borta jo zuten, anaia altxatu nahi baitzuten, baina denbora ukan zuen eskapatzeko. Orduan, Marie-Louise eta aita eta amak arrestatu zituzten, eta jo. Preso eraman zituzten Baionarat eta, gero, Bordelerat. Frantzia libratzeko guduak hasirik ziren. Aliatu hegazkinek trenbideak bonbardatzen zituzten, eta deportazio trenak ez ziren ibiltzen ahal. Halarik ere, naziak azken deportazio herronka Alemaniarat igortzera heldu ziren, «tren fantasma» deituan, hala erraten baitzioten, non ezarri zituzten Marie-Louise eta haren ama. Tren herronka hura hego Frantziatik eta Rhone ibarretik igaran zen Alemaniarat arte. Bidajeak hilabete bat eta haboro iraun zuen, baldintza izugarrietan. Aita deportatzeko denbora ez zuten ukan, eta Bordelen egon zen. Ama-alabak Ravensbruck eta Oranienburg zelaietan zerratu zituzten. Lan akigarria sufritu zuten han, gosea, zaintzaileen zigorrak eta 350 kilometroko ibilketa bat ere! Zortzi hilabetez geroztik, Marie-Louise eta ama etxerat sartu dira. Nire idurriko, bi gertakari heroiko egin zituen Marie-Louisek: lehena, hiltzetik eskapatu zen; bigarrena, eta harrigarriena, ama, 60 urteko emaztea, nazi-zerrategietatik bizirik sarrarazi zuen. Adineko pertsonak ez ziren bizirik irauten ahal, baina Marie-Louisek ama bizirik egoiten lagundu zuen egun oroz.



Gertakariok isil-gordean iraun zuten luzaz, oroimen historikoaren kaltetan beti.

Eta hein bat estonagarri izan daiteke, gerla ondoko Frantzian erresistentzia goraturik izan baita. Ospitalepeko eta Sohütako makiaren kideak heroi izendatu behar ziren, baina hemen ustekeriak ezberdin ziren. 1944ko ekainaren 27an, zibilek baizik ez zuten sufritu alemanen kexua eta errepresioa. Luzaz, herritarrek pentsatu zuten, erran gabe, pagatuak zituztela erresistentziari zor zizkiotenak, eta, bestalde, oroit naiz aita zena erraiten makiaren kideak buruarin eta espantu zirela. Makiaren kideak fidelki biltzen ziren urte oroz Ospitalepeko oroitarriaren aitzinean, baina auzapeza baizik ez zen han herritarrik. Dolu ziren herritarren sufrimenduaz, baina ez ziren haiekin mintzatzen.

Noiz arte makien kontrako ustekeria hori?

Gauzak berant kanbiatu ziren, 2004an, gertakarien 60. urteburuan. Herritar bat, J.F. Agerre, denbora hartako jakilego guziak biltzen ari zen, nahi zuen Ospitalepeko gertakariak idatzi. Jean Loustauk, maki ohi eta maki ohien elkarte baten arduradunak, herritarrekin omenaldia egin genezan proposatu zidan. Herriko auzapezarekin aipatu nuen, eta berehala ados izan zen. Eta egin genuen. Lehenik, bezperan, bilkura antolatu genuen herriko etxean, herriko bizizale arte eta makiko kide ohien artean. Egun hartan lehentze ahal izan ziren batzuk eta besteak beren jakilegoak partekatzen. Egunean berean, berriz, meza izan zen eta ospakizun zenbait oroitarriaren aitzinean, adin oroko herritar eta erresistentziako kide ohien aitzinean. ●



Beldurraren birusa



DAVID BOU
LA DIRECTA-KO KAZETARIA

Urrian Kataluniako kaleak hartu genituen Espainiako Auzitegi Gorenaren epaiaren aurka. Denak zirudien posible, eta "*que només els petons ens tapin la boca*" (musuek bakarrik estali diezagutela ahoa) esaldiak indar handiz jo zuen berriro, adierazpen askatasuna lapur ziezaguten uzteko prest ez geundela ohartaraziz. Zortzi hilabete geroago, maskarak aurpegiaren zati bat estaltzen digu, eta konfinamendu berri baten aukera inoiz baino presenteago dago. Egokitu zaizkigun garai distopikoen metafora ankerra.

Alarma egoeraren eta berrogeialdi bikoiztu baten ondoren, Kataluniako Gobernuaren hitzak entzuten dira oraindik, usurpatutako eskumenak itzultzeko eskatuz. "Independentziarekin lehenago jardungo genukeen eta ez genituzkeen hainbeste hildako eta kutsatu", esan zuen Generalitateko bozeramaileak.

Joan den astean jakin zen Lleidan COVID-19 positibo berriei ez zitzaiela arrastoa jarraitzen: ez ziren kutsatutako pertsonen kontaktuak bilatzen, eta ez ziren kutsatutako pertsona horiek isolatzen birusaren transmisioa geldiarazteko. Emaitza: berragertzea Segrià eskualdean, eta konfinamendua hamabost egunez.

Kataluniak 140 arakatzaile ditu 7,5 milioi herritarrentzat; Andaluziak 8.000, 8,4 milioirentzat. Ondo irakurri duzue,

> Nahikoa da gure eskubideak eta askatasunak murrizten dituen edozein neurri akritikoki onartzeaz "erantzukizun kolektiboagatik"

gobernu trifatxitoa Junts per Catalunya-ERC lotsagarri uzten, adituek pandemiari eusteko funtsezko elementutzat jotzen duten horretan.

Erreakzioa ezaguna duzue: maskara derrigorrezkoa Katalunia osoan, ea esku gogorrez kamuflatzen duten enegarren porrota kudeaketan. Momentuz, ehun eta berrogei agerraldi daude aktibo Katalunian. Eta ez, ez dut diskurtso ukatzailerik egingo ebidentzia zientifikoen eta milaka hildakoen aurrean, baina nahikoa da gure eskubideak eta askatasunak murrizten dituen edozein neurri akritikoki onartzeaz "erantzukizun kolektiboagatik".

Komunikabideen bidez jendartean inokulatzen duten diskurtsoa da berragertzeak gure diziplina ezaren ondorio direla, eta transmisioa familian eta lagunartean ematen dela. Inork ez du kontatzen kutsatze-katea garraio publikoan eta lantokietan hasten dela gehienetan. Jendea ia hiru hilabetez egon da giltzapetuta, okerrena iristeko dagoen krisiaren hondamendiak pairatzen, baina oraindik ere haren gaitasun ezaren errua botatzen digute.

Bartzelona konfinamendu berri baten mehatxupean bizi da gaur, eta hori saihesteko etxean geratzea "gomendatzen" digute. Baina azken hiru orduetan hirurogei hegaldik hartu dute lurra Prateko aireportuan, eta bidaiarietako batek ere ez du PCR probarik egin.

Bien bitartean, dozenaka mila pertsonak antsietatea pilatzen dute, Generalitatearen eta hiriburuko udalaren arteko salaketa gurutzatuen aurrean harri eta zur. Agian norbaitek azaldu beharko lieke COVID-19a bezala beldurra eta larritasuna ere kutsatu egiten direla, eta haien betebeharra dela egoera are jasangaitzagoa ez egitea.

Hilabeteak daramatzate garesti ordainduko dugun akats larria egiten: hain testuinguru delikatuan erabakiak hartzerakoan, herritarren osasun mentala aintzat ez hartzea. Nik maskara jartzen jarraituko dut, politikariak erreakzionatzea espero dut. Bestela, datorren ikasturtean kaleak sutan jarriko direla iragartzen dut, eta oraingoan jendeak ez du aurpegia estaliz egingo, mozal guztiak kentzeko baizik. ●

Bizitza jokatzen den lekua



PAULA ESTÉVEZ



MAIALEN BERASATEGI CATALÁN
ITZULTZAILEA

Ez dakit maskaraldi (maskarada?) honen zer fasetan izango garen artikulu hau argitaratzen denerako, baina, lerro hauek idazten ari naizen garaian, birusaren agerraldi kezkagarri bat izan da Tuteran, ezkontza baten harira antza. Berehala jakinarazi dituzte bi erabaki: maskara nahitaez jantzi beharko dela hemendik aurrera, eta zahar-etxeak blindatuko dituztela berriz. Atentzioa eman dit *blindatu* aditzak: segurtasuna hauspotu nahian erabiliko zuten noski, baina ezinegona pizten du, beste ezer bainoago. Halaxe baitaude kausa-efektuak gaur egun, ipuin latz-gordin beti -berdin baten hiru fase klasikoetan bezala. Hasiera: lanean, tabernan edo dena delakoan jende mordoxka elkartu. Korapiloa: zornea zauri gaiztotuan bezala birusa zabaltzen hasi. Bukaera: egoitzetan dozenaka zahar kartzelatuta berriro; nortzuk, eta lehen bakarralditik beranduen atera ziren horiek berak.

Ahaztu egin zaigu, nonbait: terrazak eta parkeak irekitzea kezka gailen genuen garaian, zahar ugari guztiz bakartuta zeuden oraindik, egoeraren jakitun batzuk eta ezer ulertu gabe bestetzuk, konfinamenduan txalo gutxi jo eta are kasu gutxiago egin zaion zaintzaile-talde feminizatu horrek ahaleginak eta bi egiten zituela haien beharrei erantzuteko, prekarietatearen eta bakarlanaren soka egunez egun lepoan estuxeago. Eta apenas entzuten den zer duten esateko etxe eta zahar-etxe blindatu horietako populazioek: zaintzaileek, zaharrek, zahar zaintzaileek.

Askotxo hitz egin baita zaharrez azkenaldian, eta gutxitxo entzun baitzaie zaharrei. Beti bezala, egia esan. Mari Luz Estebanek *Andrezaharraren manifestua* liburu indartsu eta zinezkoan idatzi zuen bezala: "Zaharrak ikusezinak gara, gernu-ihesaren iragarkietan aktore izatera kondenatuak". Edo oraingoan agian: "Pandemian hildakoen zifra inpertsonalak puztu dituzten biktimen eta soilik biktimen rola jokatzera kondenatuak". Eta jabetzen naiz zozoa naizela beleari ipurbelzka: ARGIAk ahotsa eman dion ez -zahar bat zaharrez hitz eta pitz, zaharrei ahotsik ematen ez zaielako protestan. Baina, kontraesanez bezainbat elkartasunez, salatzekoa da heldu ustekoek gobernatutako gizarte honetan bi mutur sinplistaren artean zabuka ibili garela zaharrez hitz egiteko orduan eta, are larriago, zaharrei ezer galdetu gabe haien inguruko erabakiak hartzeko orduan: mutur batean, biktimizazioa eta infantilizazioa ("adineko gaixoak, denak hilko zarete, guk erabakiko dugu zer egin zuek salbatzeko"); bestean, berriz, nolabaiteko darwinismo egoista bat ("zuek baldin baduzue arriskua, zuek bakartu zaitezte, eta utzi besteoi lasai bizitzen", "zaharrak hiltzea gizalegea da"...).

Aitor dezagun zintzo: birus honek batez ere nire edadekoak edo gazteagoak akabatuko balitu eta ez zaharrak, oso bestelakoak lirateke diskurtsoak eta eskariak: askoz sakonagoa litzateke alarma soziala, eta ez gintuzke hainbeste kezkatuko ez produkzioak, ez maskaren deserosoak, ez oporretan joan ezinak. Hiltzea gizalegea da, bai, zahartzea baino are gehiago. Zaintzeak eta zaindua izateak ere gizalegea behar luke. Nola hil, nola zahartu, nola zaindu, eta hori guztia nork erabaki: hortxe dago koska. Argi geratu baita gorputzen materialtasunaren zaintza-behar materialei neurri politiko-sozial materialez erantzun besterik ez dagoela, baina inoren bizia adinagatik gutxietsi gabe, zaharren bizia iraupen fisiko mutu batera mugatu gabe. Esteban *dixit*: "Gorputza, zahartzaroan inoiz baino gehiago, bizitza jokatzen den lekua izango da". ●

Zientzia eta kultura



JOXERRA AIZPURUA
INDUSTRIA INGENIARIA

Ikasle garaian hautatu egin behar izan genuen, zientziak ala letrak. Normalki, nota onak zituztenek zientzietara jotzen zuten eta hala egiten ez bazuten, irakasle arduradunek garbi samar adierazten zieten zientziak aproposagoak zirela, bizitzan aukera gehiago izango zituztelako letretan baino.

Bizitzak guztiok jartzen gaitu pixkanaka leku batean ala bestean eta asko izan dira adibidez ingeniaritza ikasi dutenak eta gerora hizkuntza aditu edota kultur aditu gisa jardun dutenak.

Aitor dut ez ditudala inoiz gustuko izan zientziak eta letrak bereizten dituzten gizarte, talde edo dena delakoak, bereizketa horrek teknokratez josi baitu gure gizartea, eta arimarik gabeko talde, gizarte edo herria biziraupen soilera kondenatuta dagoela uste baitut.

COVID-19aren testuinguruan, zientzien eta letren arteko eztabaida zaharra indartu eta lehen mailan jarri zaigu. Nola ulertu bestela, krisi honetatik ateratzeko, estatuek eta administrazioek egin beharreko inbertsio nagusiak manufaktura-industrietara bideratzea eta kultura garai oparoagoen zain utzi izana.

Kultur alorreko pertsonak eta erakundeak jo eta su ari dira oraingo egoera salatzen eta bizi beharko dutena plazaratzen. Bitartean, zientzien aldean bizi direnak isilik, norberak atera behar baititu babarrunak eltzetik, esaerak zaharrak dioenaren antzera.

Txertoak, auto elektrikoak, formulak, espazio-ontziak, 5G eta abar dugu zientzia; kulturak gizakiok inguruarekin dugun harremana bideratzen du, hala nola hizkuntzak, jateko ohiturak, bizitzeko erak, aisialdirako moduak, ingurugiroarekiko oreka eta abar. Zientziari kulturak ematen dio zentzua eta gizatasuna, eta zientziak eboluzionatzen eta aurrera egiten laguntzen dio kulturari. Orekan bizi beharko lukete biak, eta zientziak kulturarik gabe egiten badu aurrera, gizarte teknokrata eta ingurumenarekiko errespetu eskasa duena eraikiko dugun bezala, zientziarik gabeko kulturak gizartea ohitura zaharretara kondenatzea eragingo du.

Urteak daramatzagu, Euskal Herrian gutxienez, zientziaren eta kulturaren arteko oreka zientziaren aldera lerratzen. Zientziaren alorrak emandako mozkinen zati bat bideratu da kulturara eta mozkinik ezean kultura baliabiderik gabe uzteko arrisku erreala dago. Eraikitzen ari garen gizartea ongizatez mozorrotuta dago, baina gero eta zorion apalagoa dago eta hori horrela izatea ala ez izatea neurri handi batean gure esku dago. ●

Txingarrak



UXUE APAOLAZA

Haurtxo zuri bat balkoian marrubiak jaten, koronabirusagatiko itxialdian. Nire balkoia izan zitekeen, eta marrubien truke dirua eman dugunez, guk ordaindu ditugula iruditzen zaigu. Baina produktuaren trazabilitateari erreparatuta, haurtxo zuri hori jaten ari zena marrubiak baino gehiago zen. Egunotan, adibidez, errautsa litzakete, Lepeko sasoikako langileen asentamendukoa, haien arroparena, haien paperena, haien... Sistema honek haurrik errugabeena zapaltzaile egiten du.

Idatzi nahi nuke "suak asko asaldatu gaitu, zer zegoen ordea su horren aurretik?" edo horrelako zerbait, baina, berez, suak ere ez digu amorru ozenegirik sortu. Nabarmena da erre badituzte, erre zitzaketelako izan dela. Eta txingarrak ez dira Voxek paraje haietan lortutako boto zaparradara mugatzen.

Lagun batek esan dit (eta lagun jartzea ausarkeria da, bion arteko amildegiak berdinen artekoa behar lukeen edozein hitz kutsatzen baitu), kontratu bat lortzen ez badu hilabete honetan, paperik gabe geldituko dela. Hiritartasuna galduko du. Txingarrak sumatu ditut oin azpian, errautsa eztarrian eta zerbait erretzeko gogoa. ●

Zuen periferiatik



AMANCAY GAZTAÑAGA
AKTOREA ETA ZUZENDARIA

Artikulu honen idazketak blokeo momentu sakonean harrapatu nau. Medusa gorgonaren begirada jaso dut konfinamenduan eta harrizko bilakatu naiz, izoztu zait arnasa, gelditu zait gorputza.

Sofan nengoen, maiatzaren amaiera izango zen atea jo zutenean, ni hartan beste bisita baten zain nintzen, iritsiko ez zen bisita baten zain... baina istorio hori luzea da eta beste baterako utziko dut. Esaten nenbilen bezala, sofan nengoen atea jo zutenean. Zabaldu eta bera: Medusa. Nire aurrean, Medusa, aizue. Ez da egunero gertatzen den zerbait, ez behintzat niri, gorgon baten bisita jasotzea. Pasatzeko esan nion, berari eta bere burua habitatzen zuten suge guztiei. Gustu handiz jaso zuen gonbita eta etxea ezagutuko balu bezala, zuzenean salara joan eta sofan jarri zen. Tea edo kafea hartzen ote zuen dudatan, biak prestatu nituen eta bere ondoan eseri nintzen. Kafea zerbitzatu zuen noski, eta elegantzia handiz edaten hasi zen, bizkotxo zati bat txikitu eta buruan zituen ehunka sugeei apurrak ematen zizkien bitartean. Ni isilik. Beldurtuta nengoela pentsatuko duzue, hori litzateke normalena. Baina ez zen horrela izan, bere begiradan bazen zerbait samurra, hauskorra. Ni ere kafea zerbitzatu eta edaten hasi nintzen. Bakarrik sugeen txistua entzuten zela, bost bat minutu egon ginen. "Hilik zeundela pentsatzen nuen". Nire ahotik ziztu bizian irten zen galdera, ia automatikoki. Bera isilik, ezer entzun izan ez balu bezala, kafea edaten jarraitu zuen. "Perseok erail zintuela uste nuen. Zuri burua moztu eta zaku batean sartu zuela, bere etsaien aurka erabili ahal izateko". Ezagutzen nauzuenok badakizue, ezin ezkutatu dezakedala pentsatzen dudana... Nire buruari errieta egin nion mihia ez bridatzeagatik. Medusak orduan, kikara mahai gainean utzi, bizkotxo apurrak sugeen artean banatu eta tristuraz begiratu zidan. Oso gertu jarri zen, belarrira hau xuxurlatzen zidan bitartean: "Non zaudete emakume sortzaileak?". Eskua hartu zidan, eskerrak eman eta bidea ezagutu izan balu bezala, etxetik irten zen. Ni, erreakzionatu ezinda ,"Eskumuinak zure bi ahizpei!" kaskar bat besterik esatera ez nintzen ausartu.

Zabaldu eta bera: Medusa. Nire aurrean, Medusa, aizue. Ez da egunero gertatzen den zerbait, ez behintzat niri, gorgon baten bisita jasotzea

Harrizko bilakatu naiz. Non gaude emakume sortzaileak? Non gaude eta non egongo gara krisi honen ostean? Buruak moztu dizkiguzue kulturaren zaldun zareten horiek, eta zuen zakuetan daramatzazue, behar denean eta feminismoaren izenean, atera eta etsaien aurka erabili ahal izateko.

Niri izoztu zait arnasa, gelditu zait gorputza eta, kulturaren zaldunen periferiatik, "Non gaude emakume sortzaileak?" xuxurlatzea besterik ez zait geratzen. ●

ARGIA
ZURE JENDEA HEDABIDEAK IRAGARKIA

Jarri zure publizitatea hemen!
publiz@argia.eus
943 37 15 45
argia.eus/tarifak

AZOKA 2020



EROSI INTERNETEKO ARGIAREN AZOKAN

azoka.argia.eus

ARGIA 943 37 15 45 azoka@argia.eus

Elkargoko instantzietan *ordezkaritza azkarra* nahi dute abertzaleek



Herrietako hauteskundeetan emaitza onak lorturik, Euskal Hirigune Elkargoan araberako ordezkaritza eskuratu nahian dabiltza abertzaleak. Uztailaren 31n bozkatuko den batzorde iraunkorrean sartzeko asmoarekin dira, ondotik hortik direlako izendatuko batzorde eragileko kargudunak. Oraindik plenarioan bozkatua ez bada ere, lurraldeetako bilkuretako bozketei segi, minimoki hamar ordezkari ukan behar lituzkete batzorde iraunkorrean –hamar lurraldeetatik biren bozketa eskas da kopuru osoa jakiteko–.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN DANI BLANCO

2017-2020 urteetako Euskal Hirigune Elkargoaren lehen kargualdian 32 hautetsi ziren EH Bai koalizio abertzale ezkertiarreko kide ala hurbil kokatzen zirenak –EH Bai-k sostengaturiko zerrenda irekietako hautetsiak–. Aldi honetan gehiago dira: 40 eta 45 artean, hots, instituzioan aulkia duten hautetsien %18,5 inguru. Ondoko erronka argi dute: ahal bezain bat egotea elkargoko goi instantzietan –batzorde iraunkorrean zein batzorde eragilean–. Instituzio horren antolaketari segi, 232 hautetsiz osatua da batzarra eta haueta-rik 72 dira batzorde iraunkorrean –bertan lantzen dituzte plenariora eramanen diren gaiak; batzorde orokorrak honen esku utzitako gaiei buruz ere erabakitzen dute– eta 72 hauetarik 34 dira izendatzen batzorde eragilean aritzeko –botere exekutiboa duen instantzia gorena, lehendakaritzaren ondotik–. Erreportaje hau ixterako orduan, Ipar Euskal Herriko hamar lurraldeetatik zortzitan hautatuak zituzten ordezkariak eta oraingoz abertzale ala hauetarik hurbil diren hamar ukanen dituzte batzorde iraunkorrean eta zortzi izendatuak izan dira batzorde eragilerako lehian parte hartzeko –Eneko Aldana, Filipe Aramendi, Solange Demarcq-Egiguren, Arño Gastambide, Alain Iriart, Gilbert Ocafrain, Daniel Olzomendi, Peio Quihillalt–. Hala ere zortziak batzorde exekutibora sartzea ez da segurra, horien ondoan beste hautagai batzuk ere badirelako eta elkargoko presidenteak dituelako guztien artean 24 hautatu beharko (beste hamarrak lurraldeetan izendatuak dira, lurraldeka bana; oraingoz Aldana, Gastambide, Iriart eta Ocafrain dira horrentzat izendatuak, horiek segurtaturik dute, beraz, aulkia).

Ordezkaritza hori inportantea zaie abertzaleei, are gehiago, EH Bai-k iragan uztailaren 9an Uztaritzen egin biltzar nagusian erabaki zuelako hautagaitza abertzalerik ez aurkeztea lehendakaritzarako, lehenetsiz "ahal bezain ordezkaritza handia" lortzea botere guneetan. 2017. eta 2020. urteen artean lau zituzten batzorde eragilean: Alain Iriart Hiriburuko



auzapeza, Bruno Carrere Uztaritzekoa, Daniel Olzomendi Izurakoa eta Peio Claverie Miarritzeko hautetsia. “Lehen kargualdian lau genituen, beraz aldi honetan lau baino gehiago nahi ditugu”, dio Nikolas Blain EH Bai-ko permanenteak. Zehazkiago, sei politika publiko dituzte lehenetsirik eta gutxienez hauetarik biren ardura eskatzen diote Jean-Rene Etxegarai presidenteari: Trantsizio ekologikoa, garapen ekonomikoa, hirigintza, etxebizitza, mugaz gaindiko harremanak eta euskara. “Sei gai horientzako bederen bi ordezkaritza nahi ditugu, jakinez orotara 24 ordezkari direla 21 politika publikoentzat, beraz beste gaietan ere ukan beharko ditugula”.

Uztailaren 17an burutu batzar orokorrean izendatu zuten berriz ere Etxegarai elkargoko lehendakari, botoen %63,8 bildurik. Ez zuen lehiakiderik ukan parean eta 232 hautetsietarik 148k harentzat bozkatu zuten, 65ek zuri, beste 16k Alain Iriart Hiriburuko auzapez abertzaleari bideratu zioten botoa –*Mediabask*-en irakurri daitekeenez, EH Bai-ren erabakiaz kexu, barne aldeko hautetsi ez-abertzale batek bere alde bozkatzeko deia luzatu zuen anonimoki *Mediabask*-en; hori horrela ezin jakin zehazki zein aldetatik lortu duen sostengua–, Claude Olive Angeluko auzapezak bi boto bildu zituen, eta Bernard Lougarot Gotaine-Irabarneko auzapezak bat.

TALDE BAT OSATZEKO ASMOA

Hogei ordezkari baino gehiago ukanez gero, talde moduan antolatu daiteke alderdi politiko bat elkargoan. Bide hori irekitzeko asmoarekin da EH Bai koalizioa, iazko abenduko biltzar nagusian hori erabakirik. Abertzalez ere osatutako zerrenda zabal horietako beste hautetsiekin ere landu eta adostu behar du ideia, guztiak ez direlako EH Bai-n. “EH Bai kide eta hurbilekoen arteko talde bat? Ezkerreko progresistekin ere bai? Ideiaren alde bozkatu genuen, orain ideia babestu eta koadroa definitu behar ditugu”, Blainek dioenez. Talde gisa osatzeak hainbat tresna dakarzki: permanente baten en-





plegatzea, elkartu ahal izateko bulego baten lortzea eta abar.

Talde modura osatu ala ez, harreman estua dute hautetsi abertzale eta hurbilekoek. Uztailaren 17ko elkargoaren batzarraren ondotik haien artean topatu ziren, elkar ezagutzeko eta talde dinamika elikatzeko. Funtsean, Euskal Hirigune Elkargoaren plenarioak diren aldi oro bilkura bat dute aitzin, elkarren artean gai-ordenaz solastatzeko, eztabaidatzeko eta ideiak adosteko.

Uztailaren 17ko bilera bukaturik, hainbat hautetsi abertzalerekin hitz egin zuen Argiak eta guztiek dituzte lehentasun berak ondoko sei urteentzat: Etxegarairekin negoziatzeko orduan "lehentasun" gisa kokatzen dituzten sei politika publikoak. Kostaldea eta barne aldearen arteko oreka ere ezinbestekotzat dute. Elkargoa ideia abertzaleak zabaltzen segitzeko bidea ere dela diote. "Abertzaleen pisua emendatu da eta espero dugu elkargoan ukan dezakegun ordezkaritza ere emendatzea, gure ideiak aurrera eramateko erraztasun gehiago emango digulako", dio Eneko Aldana Ziburuko auzapezak. Pantxika Gallois Uztaritzeko hautetsiak dioenez, "kontsentsuaren izpiritua baldin bada ere, bidea luzea da oraindik eta gai batzuei buruzko desadostasunak daude eta hainbat kontu aitzina eraman behar ditugu abertzale gisa". Euskarari buruz galdetuz gero, mezu bera luzatzen du Aldanak: "Ez dakit zer pasako den, baina guk abertzale gisa euskara zabaltzeko borondatea badugu eta hor izanen gara behin eta berriz gai hori mahai gainean ezarrarazteko". Hizkuntza politikaren kargua abertzale baten esku gelditzea espero du Olzomendi Izurako auzapezak. Lehen hiru urteetan Beñat Arrabit Arrosako EAJ auzapezaren esku zen.

> *"Lehen kargualdian lau hautetsi genituen batzorde eragilean, beraz aldi honetan lau baino gehiago nahi ditugu"*
>
> **Nikolas Blain**
> EH Bai-ko permanentea

EUSKARA, OFIZIALKI BERTAKO HIZKUNTZA

2018ko ekainaren 23an elkargoak "ofizialki" aitortu zituen euskara eta gaskoia Ipar Euskal Herriko hizkuntza gisa, frantsesaren ondoan. Nonbait, Frantziako Konstituzioarekin arazorik sortu gabe, bi hizkuntza gutxituei aitortza bat emateko urrats sinboliko baina garrantzitsua izan zen. Euskarari dagokionez ere kontsentsua bada. Adibide dugu uztailaren 17ko biltzarrean aho batez bozkatu izana Frantziako Hezkuntza Nazionalaren jarrera salatzen eta euskarazko murgiltzeko sistemaren alde doan mozioa. Alde izatetik alde egitera pasatzeko bideari lotu beharko dira ondoko sei urteetan, euskara ez delako osasuntsu ofizialtasunik ez duen Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoan. Demagun, batzar horietan itzulpen sistemaren aukera bideratzea litzateke keinu baikor bat edota elkargoaren komunikazioak euskaraz ere zabaltzea. EH Bai-ko permanenteak dio "presio eta bultzatze lana" egin beharko dutela eta horretarako dela inportantea hizkuntza politikaz arduratuko den lehendakariordea abertzalea izatea. Horrez gain, hizkuntza politikara bideratu aurrekontua araberakoa izan beharko dela dio, dirurik gabe nekez osatu daitekeelako hizkuntza politika ausart bat.

Uztailaren 31n batzorde iraunkorra bozkaturik, agorrilean zehar osatuko dute batzorde eragilea. ●





Lurralde eremua	Ordezkariak Elkargoko batzarrean Herri kopuruaren eta biztanleriaren araberakoa da ordezkaritza.	Ordezkariak batzorde iraunkorrean Biztanleriaren araberako ordezkaritza dute lurraldeek.	Ordezkariak batzorde eragilean Batzorde eragilean izateko batzorde iraunkorrean izan behar da.
Euskal Kosta Aturri 5 herri	**55**	**27**	**11**
Hego-Lapurdi 12 herri	**29**	**14**	**6**
Errobi 11 herri	**14**	**7**	**3**
Errobi-Aturri 6 herri	**8**	**5**	**2**
Hazparne 11 herri	**13**	**4**	**2**
Xiberoa 36 herri	**36**	**4**	**2**
Garazi-Baigorri 30 herri	**30**	**4**	**2**
Amikuze 27 herri	**27**	**3**	**2**
Bidaxune 7 herri	**7**	**2**	**2**
Iholdi-Oztibarre 13 herri	**13**	**2**	**2**
OROTARA 158 herri	**232**	**72**	**34**

Batzorde eragilearen osaketa

Lehendakaria (1)

Lehendakari-ordeak (15)
(bakoitza politika publiko baten ordezkari)

Lurraldearen ordezkariak (10)
(lurralde bakoitzetik 1)

Politika publiko baten ordezkariak (9)

Modu eraikitzailean burutu da biltzar nagusia, iritzi desberdinen errespetuan”

ANITA LOPEPE

EH BAI-KO BOZERAMAILEA

Biltzar nagusi garrantzitsua burutu zuen EH Bai koalizio abertzale eta ezkertiarrak iragan uztailaren 9an, hor zutelako erabakitzen Euskal Hirigune Elkargoaren lehendakaritzari buruz nola kokatu. Gaiaren garrantziaren eta interesaren seinale, 175 kidek parte hartu zuten bozketan. Harturiko erabakia xeheki azaldu digu koalizioko bozeramaileak, eta ondoko kargualdiari begira EH Bai-k dituen lehentasunei buruz ere aritu zaigu.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Elkargoko lehendakaritzari buruzko estrategiaz erabaki zenuten biltzar nagusian. Eztabaidaren kalitatea azpimarratu duzue.

Hori azpimarratu nahi izan dugu aitzineko egunak doi bat tentsiodunak izan zirelako. EH Bai-ren baitan finkaturiko barne-prozeduratik kanpo hainbat adierazpen egin ziren komunikabideetan, barne-mailako eztabaida pixka bat baldintzatu zutenak, eta formarengatik hainbat militantek sorpresaz hartu zituztenak. Bazen prozedura bat finkaturik: Elkargoaren baitan proiektu ezkertiar abertzale eta ekologista molde hoberenean defenditzeko hainbat hipotesia mahaigaineratuak ziren. Helburua hori genuen eta molde operatiboan, bi hipotesi atxiki ziren aztertzeko –lehendakarigai abertzale bat presentatzea eta sostengatzea, eta hautagai abertzalerik ez aurkeztea, baina egin ahalak egitea elkargoan pisatzeko–. Aitzineko biltzar nagusi batean bozkaturiko lan-talde bat zebilen bi bideen aztertzen. Eztabaida militanteen artean eraman nahi genuen eta tentsio eta desadostasunen gainetik pasaz, biziki molde eraikigarrian iragan da biltzar nagusia. Biltzar jendetsua izan da, 175 pertsonek parte hartu dute bozketan. Erronka eta erabaki politiko gotorra zen eta modu eraikitzailean burutu da, iritzi desberdinen errespetuan.

Ondorioztatu duzue hautagai abertzale bat aurkezteko baldintzak ez direla beterik.

Jakin behar da bi hipotesiak helburu berarekin planteatzen zirela, helburuari dagokionez ez delako batere desadostasunik. Gure proiektua aitzina eramateko eremuetarik bat da Euskal Hirigune Elkargoa; lan egin dugu elkargo hori sor zedin, eta gure proiektua eremu instituzionalean ere garatzekoa dugu. Egoera politikoaren azterketatik egin da ikuspuntuen diferentzia: hautagaitza abertzale baten aurkezteak ala ez aurkezteak lituzkeen arriskuak aztertu dira. Azken finean, irriskuen neurketa batetik etortzen da ikuspuntu desberdintasuna eta geroak digu erranen ea aukera ona hautatu dugun.

Zer dela eta baldintzak ez dira beteak?

Maila desberdinetan eman da eztabaida eta ikuspuntu hau da nagusitu: Ipar Euskal Herriko azken urteei begiratzen bazaie, mendeetan jasandako ukazioei dagokionez izan dira aitzinamendu ttipi batzuk eta lortu dira jendarte mailan gehiengo soziala eraiki delako –ezagupen instituzionala, gatazkaren ondorioen konponketa edo beste gai batzuk–. Pisatu duen argumentua izan da ea hautagaitza abertzale bat aurkezteak ez ote zituen gehiengo sozial hori eta kontsentsu posizioak ahulduko. Irriskuei buruzko eztabaida izan da eta lehenetsi da momentuko lehia elektoralean urrats bat gehiago ez ematea, Ipar Euskal Herriko prozesu politiko orokorraren mesedetan.

Momentuko.

Pertsonalki, ez dut dudarik egun batez Ipar Euskal Herriko instituzio nagusia abertzaleen esku izanen dela –momentuko elkargo bat baizik ez dena, baina badakigu gure helburua urrunago doala–. Noizko da hori? Gure lanaren arabera izanen da. Aldi honetako hartu postura ez da postura hetsi bat: gaurko egunean, genituen elementuekin, aukera eta irriskuen azterketaren bidetik lehenetsi da ez zela momentua. Baina denok ikusi dugu hauteskundeetan dugun gorakada; horrek erran nahi du abertzaleetatik haratago jende anitzek konfiantza egiten diola ekartzen dugun proiektuari. Baditugu ere hainbat pertsona gaitasun handikoak, Alain Iriart hauetarik da, maila horretako ardurak betetzeko arrunt kapable direnak. Beraz, ez da printzipiozko postura bat, egoeraren araberakoa baizik.

Abertzaleak azkarki ordezkatuak izan beharko direla diozue. Etxegarairekin harremanetan zarete?

Uztailaren 17an lehendakaria bozkatu zen eta hori eginik, 31n osatuko dira beste instantziak: lurraldeen kontseiluak eta batzorde iraunkorra. Hor presente izateko lana eramaten dugu, batzorde eragilearen osaketa batzorde iraunkorraren osaketaren arabera eginen delako. Panorama baikor bat badugu, hamar lurraldeetatik gehienetan abertzale batzuk hautatuak izanen direla pentsatzen dugu –gure gabeziak baditugu ere, Baiona-Angelu-Miarritze inguruan adibidez ez gara azkar–. Negoziaketa bat baino gehiago, ordezkaritza sistema mekanikoa dugu: batzorde eragilean izateko, edo gure lurraldearen ordezkari gara eta *de facto* exekutiboan gara, edo batzorde iraunkorrean gara eta batzorde eragilearen baitan politika publiko baten kudeatzeko hautatuak gara. Beraz, azken finean presidentea edozein izanik ere, ez da osoki eta guztiz batzorde eragilearen osaketaren jabe. Beraz "negoziaketa" aski erlatiboa da eta presidentea eta batzorde iraunkorra hautatu ondoren gara batez ere horretan ariko.

Elkargoaren funtzionamendu "demokratikoagoa" bultzatuko duzuela diozue.

Hori puntu gako bat da, eta agian horri buruz ukan ditzakegun kritikek dute parte handi batean bultzatu lehendakarigai propioa aurkezteko ideia. Hain zuzen, hainbat adibidek erakusten digutelako Etxegarai orain arteko lehendakariarekin ez dela desadostasun politiko sakonik izan. Baina bada ere ibilmoldearena. Duela urte bat pasa, 120 bat auzapezek deiadarra jo zuten ohartarazteko kontzentrazio handiegia bazela ibilmoldean eta boterearen ariketan. Elkargoaren bizia arrakastatsua izateko eta egituratze instituzionalak onerako balio duela sentiarazteko hautetsi zein herritarrei, uste dugu bermatu behar dugula hautetsiek haien tokia atzematen dutela tresnaren baitan. Lurraldeak urrun izanik ere –Baionan zentratzen dira hainbat bilkura eta zerbitzu gehienak, langile gehienak ere han dira–, ez badugu frogatzen egitura instituzionalak Zuberoarako, Amikuzerako ala Hego Lapurdirako balio duela, orduan ez dugu bermatzen tresnaren arrakasta. Gure iduriko ibilmoldearen deskontzentrazioa eta politika eta inbestitzeen deszentralizazioa gakoak dira eta ondoko mandatuan arreta handia jarriko dugu horretan.



ANITA LOPEPEK UTZIA

> *"Irriskuei buruzko eztabaida izan da eta lehenetsi da momentuko lehia elektoralean urrats bat gehiago ez ematea"*

Ondoko kargualdiarentzat zein da zuen lan ildoa?

Politika publiko guztiak inportanteak dira, baina guk abertzale gisa batzuk lehenesten ditugu. Bata da trantsizio ekologikoarena, hari gorria dugu hau, hainbat arlotan eraman beharrekoa –laborantza, hirigintza...–. Era berean, elkargoaren alde eginda ere, eskumen eta ahal gehiago dituen instituzio baterantz joateko urratsa da, hori guztia gure herria eraikitzeko –Ipar Euskal Herria baita zazpi lurraldeen artekoa ere–. Beraz "mugaz gaindiko harremanak" izendatzen den politika publikoan ere arreta berezia jarri nahi dugu. Lurraldeen politika, hizkuntza politika, baita garapen ekonomikoa ere. Azken horri dagokionez, Laborantza eta Elikadurarako Egitura Publikoaren sorrera gakoa izanen da. Hirigintzarako dokumentua ere osatuko da ondoko sei urteetan, arlo biziki inportantea.

Ondoko egituratze fasea nola aurreikusten duzu?

Anitz gauza dira eremu horretan zehaztekoak, Batera plataforma ere ari da gogoeta hauekin. Azken urteetan elkargoaren lehen urratsak ahal bezain ongi pasatzean zentratu gara denak. Orain elkargotik lurralde kolektibitatera pasatzeko urratsari lotu beharko gara –horrek duelako Ipar Euskal Herrian gehiengoaren atxikimendua–. Deszentralizazio Erreformarekin elkargoaren aukera etorri baino lehen, Ipar Euskal Herriko jendartearen gehiengo batek eskatzen zion Parisi lurralde kolektibitatea eta ezezko borobila erantzuten zion. Gaur egun anbizio handiko elkargoa dugu eta lurralde kolektibitatearen nahia beti hor da. Egoera aldatu da eta beharbada behar dugu pentsatu nola egiten den batetik besterako urratsa, baliatuz deszentralizazio erreformak ireki aukerak. Adibidez diferentziazio eskubidea hor da, gai jakin batzuen inguruan salbuespeneko lanketa batzuk egiteko aukera ematen diguna. Ondokoa dugu ariketa: estatuak emandako erantzuna baino, hemendik bertatik, hemen osatzen den gehiengotik dugun tresnari bilakaera bat ematea. Hori printzipio bat da, eta ondoko kargualdian lanketa zehatzagoa eraman beharko dugu. ●



“Euskaraldia entrenamendua da, ez partida”

PELLO JAUREGI

Pello Jauregi EHUko irakaslea da eta hizkuntza ohiturak aldatzeko egitasmoak ikertzen aritzen da. Euskaraldiko *belarriprest* eta *ahobizi* figuren diseinatzaileetako bat da. Euskaraz egin nahi dutenentzat koltxoia prestatu behar dela uste du, eta ingurune eroso hori belarriprestek osatzen dute. Belarriprest figuraren garrantzia azpimarratu du elkarrizketan.

ONINTZA IRURETA AZKUNE JON URBE / FOKU



2018ko Euskaraldian *ahobizi* eta *belarriprest* rolen artean *belarriprest* izatea aukeratu zenuela adierazi zenuen. Kazetari honek ez zuen hautua ulertu, euskara gaitasuna eta hizkuntza kontzientzia duenak *ahobizi* rola jokatu beharko zukeelakoan, baldin eta norberaren hizkuntza ohiturak aldatzea bazen helburua. Berdin pentsatzen segitzen duzu?

Are gehiago, lehenengo hartan bi figurek jaso zuten harrera kontuan hartuta, aurten ahalegin berezia egin beharko litzateke *belarriprest* figura areagotzeko. Aurrekoan *ahobizi*-rako joera erraz samarra antzeman zen, "ni euskalduna naiz beraz *ahobizi* naiz", pentsatu zuen jende batek. Ez zuten kontuan hartu rolak ez duela hitz egiteko gaitasuna bakarrik eskatzen, rol horrek konpromisoa eskatzen du: prest nago nire hizkuntza ohiturak aldatzeko; prest nago euskaraz ulertzen duten guztiekin euskaraz hitz egiteko, eta ezezagunekin lehen hitza euskaraz egiteko. Alegia, "euskaraz bizi nahi dut ahal dudan momentu guztietan". Euskaraz bizitzeko gogo handia duten horiek euskararen legamia dira, benetako motorra.

Beste figura *belarriprest* da, eta aurrekoan *ahobiziak* baino askoz ere gutxiago izan ziren. Nire logikan behintzat, askoz ere *belarriprest* gehiago behar dira, *ahobiziak* baino. Une honetan bi figura horietatik bat kendu beharko bagenu, nik *ahobizi* figura kenduko nuke.

Zergatik behar dira *ahobizi*ak baino *belarriprest* gehiago?

Errealitatearen ispilua hori delako. Euskaraz ondo hitz egiten dutenen eta euskaldun pasiboak direnen artean, gehienek, ez dute euskaraz hitz egiten. Ez da errealista pentsatzea bat-batean jende guztiak euskaraz hitz egiteko konpromisoa hartuko duela. 2018an, zurikeriatik gehiago egon zen: euskalduna naiz, beraz *ahobizi* naiz. Eskatzen zuen konpromiso maila ez zen bete kasu askotan.

Belarriprest figurak konpromiso maila txikiagoa eskatzen du, errealistagoa da. Batzuek ulertzen dute euskara, baina hizkuntza ohiturak aldatzeko ez daukate iniziatibarik; beste batzuek ez dute nahi; beste batzuei ezezagun guztiei euskaraz egitea nekezegia egiten zaie… baina ulertzen dute, eta jendeak euskaraz egiten badie prest daude euskaraz egiteko. Rol pasiboagoa da. Jende askok tokia eduki beharko luke hor.

Pasiboagoa da, bai. Batzuk euskaraz egiteko gai dira eta rol horrek ez dio eskatzen euskaraz egitea.

Kontratu soziala da. Txapak adierazten du bakoitzak nola jokatuko duen ariketa egiten den bitartean. Batzuek konpromiso sakon bat hartuko dute eta beste batzuek konpromiso txikixeagoa, baina konpromisoa da. *Ahobiziak* euskaraz hasten direnean eta *belarriprestak* parean dituztenean, gehienak pasako dira inertziaz euskarara, badago kutsadura fenomeno bat. Mekanismo psikologikoa da, hizkuntza simetria deitzen zaio, alegia, eroso sentitzen gara hizkuntza bereko elkarrizketatan. Euskaldunok horretaz badakigu zerbait. Antzematen baldin badugu solaskideak erdaraz egiten duela, gehienok erdarara pasatzen gara.

Beraz, besteak beste, *belarriprest*ak euskaraz hizketan jartzea da asmoetako bat.

Horixe bera. Lan munduan hamar urte daramatzagu Eusle metodologia aplikatzen. Horren arabera, eremu bat, tailerra edo saila hartzen da. Denek ulertu behar dute euskara. Hamarretik bik hartzen dute eusle parera, *ahobizi* litzatekeena Euskaraldian, eta gainontzeko denak *belarriprest* dira. Denek egiten dute aurrera, *belarriprest* direnek ulertzen dute eta haiei euskaraz egitea nahi dute. *Ahobiziek* lasai egiten dute euskaraz, kargarik gabe. *Belarriprestak* kutsatu eta euskaraz hasten dira modu naturalean. Presio naturala dago. *Belarriprest* ez da, "nik erdaraz egingo dut".

Bi figura hauek Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta sortu dira. Espero behar duzu *belarriprestak* zu euskaraz entzun nahi zaituela, baina gune erdaldunetan ez uste izan *ahobizi* txapa eraman eta ezezagun guztiei euskaraz egitea. Kostu energetiko ikaragarria da, ez da errealista.

Bi figura hauek aukera eman behar diete oso euskaldunei edo oso kontzientzia handia dutenei, baina baita beste geruza batzuei ere, hala nola euskararekin neutro direnei, edo behar dugu gune erdaldunetan jendea armairutik ateratzea. Horregatik, erabilearen ikuspegitik, bi figurak dira interesgarriak.

Une honetan zabaltzeko aukera gehien duen figura *belarriprest* da. Euskaraz bizi nahi dugunok behar dugun koltxoi ikaragarria da *belarriprest* figura, gu eroso aritzeko nonahi eta edonorekin.

Hizketarako soberako gaitasuna dutenek eta hizkuntza kontzientzia dutenek erabileran aurrera egiteko, sarri ausardiaz jokatu behar izaten dute, parean izango duenaren erreakzioen beldur. Profil horretako jendeak *belarriprest* aukeratzeak ez du ekarriko euskaraz egiteko ditugun zailtasunak ikusgai ez egitea?

Bakoitzak ikusiko du non sentitzen den erosoen, baina biek daukate potentzialitate ikaragarria erabileran aurrera egiteko. Uste dugu hizkuntza ohiturak aldatzeko modu aktiboan jokatu behar dela, bestela ez dela aurrera egiten. Eusle metodologiaren bidez ikusi dugu gauza ez dela horrela, gauza kolektiboa dela. Beti daude batzuk jokaera urratzailea daukatenak. Horiek dinamika berezia sortzen dute, baina aldamenean jokabide jarraitzailea edo irekia daukatenak behar dituzte, alegia, bere burua eramaten uzten dutenak. Zenbat jende dago halako jarrera urratzailea izateko? Batzuk.

Euskaraldia gune erosoa da. Azaldu duzu nola *belarriprest*ek *ahobizi*ei euskaraz lasai egiteko bidea ematen dieten. Alabaina, *ahobizi*ak txapa duenari eta ez duenari egiten dio euskaraz (lehen hitza behintzat), norbanakoei, erakunde publikoei, pribatuei... eta hizkuntza gatazkak sortzen dira.

Bi testuinguru daude. Euskaraldia ariketa da, mugatua, bi figurak ariketa horretarako daude pentsatuta, gure eguneroko inertziei astindua emateko. Baina zuk diozuna da Euskaraldia eta gero zer. Hori beste eztabaida bat da, oso sakona.

Euskaraldia entrenamendua da, ez partida. Partida beste termino batzuetan jokatzen da. Hala ere, konplikatua da partida irabaztea entrenamendurik gabe, eta entrenamendua eginda ere, agian ez da partida irabaziko.

Euskaraldia ekarpen txiki bat da, ez du konpontzen euskararen auzia. Hizkuntza partida jokatzeko hiru zutabe daude. Lehenengoa hizkuntza politika, hartzen diren neurri legalak eta legediaren garapena da. Bigarrena hizkuntza plangintza da. Hirugarren hanka irakaskuntza da. Arrazoizko epe batean, gutxienez ulermen unibertsala ziurtatu behar da, Euskal Herrian edonon euskara denek ulertuko duten testuingurua.

Euskaraldiak marko bat jartzen du. Hurrengo aldira arte bi urte daude hizkuntza plangintzetan aurrera egiteko, hizkuntza politikan neurriak hartzeko, eta irakaskuntza bermatzeko.

> "Askoz ere *belarriprest* gehiago behar dira, *ahobizi*ak baino. Bi figura horietatik bat kendu beharko bagenu, *ahobizi* figura kenduko nuke"

> "Ele biko elkarrizketek funtzionatzen dute, baina ezin da modu masiboan aplikatu. Oso antinaturalak dira"

Euskaraldiak balio du erabileran indarra jartzen duelako, indarrak metatzeko balio duelako... Askotan egongo gara borrokan instituzioak eta herri mugimenduak, baina behintzat tarte batean aukera dugu hizkuntza ohiturez pedagogia soziala egiteko. Adibidez ele biko elkarrizketak.

Ez dugu bi hizkuntzatan elkarrizketak izateko ohiturarik. Euskaraldian halako praktikak egin dira. Zer moduzko esperientzia izan da?

Ele biko elkarrizketek funtzionatzen dute, baina ezin da modu masiboan aplikatu. Oso antinaturalak dira. Ahalegin gehigarria eskatzen dute eta benetan gogo handia daukaten pertsonek baino ezin dute egin. Ezin dugu pentsatu euskara gaitasun handia duten guztiek horrela jokatuko dutenik. Eusle metodologia aplikatzen dugunean, lantokietan eskatzen dugu %20 izatea *ahobizi*, eta horiek denei euskaraz egiten diete, nahiz eta askok erdaraz erantzun. Egoera horretan ele biko elkarrizketa institucionalizatzen da. Gutxi batzuen lan hori lurrikara da, eta denen artean lortzen dute erabileran gora egitea. Baina beti izango da minoritarioa eta borrokarako tresna bat, erabilera suspertzeko bultzagile bat.



Lantokiko esperientzia aipatu duzu. Esaten ari zarenak eremu sozialerako ere balio du?
Bai, baina denek ulertu behar dute. Bigarren Euskaraldian *arigune*-en kontzeptua sartu da. Horixe da *arigunea*. Gutxi batzuk gara *ahobizi*, baina denak gara *belarriprest*, denok ulertzen dugu. Ingurune horretan euskaraz egiten duenak, nahiz eta erantzuna erdaraz jaso, badaki ez dela enbarazu egiten ari, ez dela gogaikarria. Ez dago giro txarrik eta asko errazten da ele biko elkarrizketak egitea.

Kataluniakoaz gain, zein beste esperientzia daude?
Uler-saioei buruzko liburuan gaia landu dut eta Europako praktikak kontatu ditut. *Intercomprehension* mugimendua zabaltzen ari da Eskandinavian, Suitzan, hizkuntza latinoak dituzten herrialdeetan... Adibidez, Eskandinavian familia bereko hizkuntzak dauzkate eta mugimendu horren bidez, nolabait ingelesari nagusitasuna kendu nahi diote. Europan, elkarren artean ingelesez egin beharrean, bultzatzen ari dira norberak bere hizkuntzan hitz egitea, besteek ulertzen badute nahikoa da. Unibertsitateetan gauza asko ari dira mugitzen. Baina hala ere, berriz diot, joera minoritarioa da. Ezin du gehiengoarena izan, zeren naturala denok hizkuntza berean hitz egitea da. ●

***Uler-saioak* metodologia argitaratu berri duzu Soziolinguistika Klusterraren eskutik. Lehenago *Ulerrizketak* liburua izan zen. Zertarako dira metodologia horiek?**
Aldahitz egitasmoa hasi genuen duela hamar urte eta antzeman dugu hiru komunikazio egoera arketipiko daudela. Lehenengoan bi solaskideak ongi ulertu eta mintzatzen dira. Egoera horri begira Eusle metodologia prestatu genuen eta Euskaraldiak hortik edan du asko.

Bigarren komunikazio egoeran kide bat ongi ulertu eta mintzatzen da, baina besteak ulertzen du, baina hitz egitea kosta egiten zaio, euskaldun pasiboa da. Horrelako egoeratan, bai lan munduan bai eguneroko bizitzan, ikusi dugu hamarretik zortzitan erdara nagusitzen dela. Euskaraz ondo egiten duenak antzematen duenean solaskideak zailtasunen bat daukala, gehienetan erdarara pasatzen da. Administrazio publikoan horrelako egoera asko dago. Hizkuntz eskakizuna atera dute, ulertzen dute, baina hitz egiteko erraztasunik ez daukate, eta horiek ez dira inoiz hiztun bihurtzen, besteak beste euskaldunek euskaraz egiten ez dietelako. Horri begira prestatu genuen *Ulerrizketa* metodologia.

Hirugarren egoeran bat ongi mintzatzen da, eta bere kideak edo ez du ulertzen edo oso gutxi. Ezinezkoa da euskaraz komunikatzea. Horretarako da *Uler-saioak* metodologia. Kontua da nola desblokeatu deskribatu dugun komunikazio egoera. Proposatu dugu ulertzen ez duenak 60 ordutan gaitasuna eskuratzea oinarrizko euskara ulertzeko. Oinarrizko gaitasuna badaukate, seguru asko egoera sozial ugari desblokea daitezke. Lan hau batik bat marko teorikoa da, ez dugu nahikoa esperimentatu. Esperantza daukagu ea adibidez euskaltegikoak animatzen diren esperientziak egitera.

Euskaltegiak gune egokiak iruditzen zaizkizu?
Normalean euskaltegiek ez dute horrelako formularik aplikatu. Euskaltegiek daukate formula estandar bat non trebetasun guztiak lantzen diren, entzumena, mintzamena, irakurmena, idazmena, baina prozesu oso luzeak izaten dira. Gure proposamena da fokua ulermenean jartzea eta denbora laburrean egitea. Ulermen unibertsala ahalik eta azkarren lortzeko estrategiak behar ditugu eta gurea ekarpen xume bat baino ez da.

ZER GERTATU DA **ISRAELEK IRAGARRITAKO ANEXIO BERRIA**REKIN?



Hilabeteak eman dituzte eguna noiz helduko zain, makinaria politiko eta urbanistikoa prest. Uztailaren 1a zeukaten finkatuta, berez, Zisjordaniako (Palestinako lurralde okupatuak) lurraldearen herena Israelgo Estatuak beretzat hartuko zukeen egun gisa. Palestinarren bizitza inguratzen duen harresia barrurago eramateko promesarekin lortu zuen Benjamin Netanyahuk presidente berrizendatzea, Donald Trumpen onespenarekin. Koronabirusaren bigarren olatuaren erdian heldu da eguna, ordea, eta momentuz *stand-by* egoeran dago asmoa.

MARIA ORTEGA ZUBIATE

Asko izan ziren nazioartean eskuak burura eraman zituztenak AEBek eta Israelek sinatutako itunaren nondik norakoak jakitean. Urtebete pasatxo egon zen Israelgo Estatua gobernubururik gabe, lau aldiz presidente izandako Netanyahuk ez baitzuen behar besteko babesik lortzen. Oposizioko buruarekin, Benny Gantz izeneko soldadu ohiarekin, gobernua eratzea lortu eta astebetera sinatu zuen kanpainan mehatxu baino gehiago promesa betegaitz itxura zuen plana betearaziko zuen ituna: Zisjordaniako lurren hirugarren anexioa itundu zuen AEBekin, bi estatu sortzeko baldintzapean.

Irakurlea Israelgo politikan pixka bat kokatze aldera, Gantzek 2018ko abenduan Israel Resilentzia izeneko alderdi politikoa sortu zuen, ondoren beste bi alderdirekin aliantzak sinatu eta Kaḥol Lavan izeneko koalizio "zentrista eta liberala" osatzeko –Kahol Lavan izenak hebreeraz Urdina eta Zuria esan nahi du, Israelgo banderaren koloreak–. Gantzek kanpaina egin zuen esanez lehen ministroaren agintaldi kopurua legez mugatu behar zela, osasun publikoa indartuko zuela edo Palestinako Autoritatearekin bake negoziazioak berrartuko zituela, besteren artean. Netanyahurekin gobernua osatzeko negoziazioetan sartu eta aurtengo martxoan Urdina eta Zuria aliantza hautsi egin zen arren, Israel Erresilientzia alderdiak aliantzaren Urdina eta Zuria izena beretzat mantendu eta Netanyahuren Likud alderdiarekin akordioa sinatu zuen. Likudi bosgarren agintaldia abiatzeko babesa eman zion eta Gantz 2021eko urritik aurrera lehen ministro izango dela finkatuta utzi zuten, defentsa eta atzerri ministroak bere alderdiaren eskuetan uztearekin batera.

Esan bezala, anexio planek aurrera egin zuten gobernua osatzean, palestinarrak sutuz: "Gerra krimen" bezala definitu zuen Liga Arabiarrak; Palestinako Estatuak eta Palestinaren Askapenerako Erakundeak Israelekin dituzten segurtasun itun guztiak bertan behera utziko dituztela jakinarazi zuten; Gazako agintaritza duen Hamasek armak hartzera deitu zuen Palestinaren Askapenerako Erakundea; eta NBEk anexioa bertan



ANEXIOAREN AURKAKO PROTESTAK GAZAN

ARGAZKIA: AFP

behera uzteko eskatu zion Netanyahuri. Iazko udaberrian, AEBek enbaxada Tel Avivetik Jerusalemera mugitu zuten, "hiri sakratua" Israelgo Estatuaren hiriburu bezala onartuz, palestinarrentzat muturreko iraina den ekintza.

Egutegian gorriz markatutako egun zen 2020ko uztailaren 1a, Israelek bere lurren azken hedapena gauzatuko zukeen eguna. Mundu mailan arrabotsa eragin zuen, baina eguna heldu zenean, hondeatzaile edota poliziarik ez zen ikusi, ez ohiko okupazio militarra mantentzen duten soldaduak baino gehiago behintzat; Netanyahuk kalera atera zuen bakarra komunikatu bat izan zen, esanez "AEBetako bidali bereziekin negoziazioek jarraituko" dutela. Baina, zergatik atzeratu data zehatza finkatua zuen prozedura?


OSASUN ARAZOAK

"Anexioa uztailean ez bada egiten, ez da beste inoiz egingo", zuen izenburua *Haaretz* egunkari israeldarrak uztailaren 1ean kaleratutako albiste batek. Zisjordaniako kolonia juduetako zenbait buruzagik egindako adierazpena zen; beste buruzagi batzuk are zorrotzagoak izan ziren, eta joan den uztailaren 15erako gertatu ez bada anexiorik ez dela izango zioten. Atzerapena hainbat arrazoik eragin dutela uste dute: COVID-19aren krisiak, Gobernuaren barne-desadostasunek, AEBetako hauteskundeen hurbiltasunak eta kanpo presioek, besteak beste.

Izan ere, mundua geldiarazi duen pandemiak anexioari ere ekarri dio atzerapenik. Israel bigarren koronabirus olatuak kolpatu du uztailean, kasuen gorakada nabarmenarekin. Palestinako lurretan ere igarri dute igoerarik, eta Zisjordanian konfinamendua ezarri dute. Horren aitzakian, Netanyahuren sozio Gantzek anexioa atzeratzeko eskatu du; koronabirusaren krisi betean uztailaren 1a ez dela data "sakratua" argudiatuz.

Gizartearen osasuna ez da agintariak kezkatzen dituen faktore bakarra; egoera politikoak pisu handia du. Hagar Shezaf kazetariak *Haaretz*-en dioenez, AEBetako hauteskundeak urtea amaitu orduko egingo dira, eta sionistek badakite Donald Trumpek ez duela mugimendu

ATZERAKADA KARTOGRAFIKOA



"dramatikorik" egingo eta "planarekin aurrera jarraitzearen alde" agertuko dela. Hau da, ez du "anexio bizkor" baten aldeko pausurik emango, baina anexioa gauzatzeko argi berdea emango du.

Nazio Batuen Erakundeak anexioa bertan behera uzteko eskatu dio Netanyahuri, nazioarteko legedia "larriki" urratzen duela esanez –palestinarrek Apartheidaren murrua deitu dutena ere legez kanpokotzat jo izan du askotan eta eraisteko eskatu, baina Israelek entzungor egin eta 708 kilometroko harresia eraikitzen jarraitu du palestinarren herriak eta beren lurrak bereiziz–. Anexioaren gaiarekin ere NBEren eskariei entzungor egin die Netanyahuk, gobernuko eta nazioarteko bazkideen erabakiek baldintzatu duten arte.

Bada Zisjordainaren anexioa arreta mediatikoa desbideratzeko estrategiatzat jotzen duenik ere. Netanyahu ke-saltzailetzat du Anshel Pfeffer analista israeldarrak, adibidez. Pfefferren ustetan, Netanyahu bere gobernuaren ustelkeria kasuak estaltzeko erabiltzen ari da Zisjordania. Israeldar hautesleei "denbora-pasa" jostagarria eskaini diela dio, bere ustelkeria eskandaluak, autokrazia eta koronabirusaren eta ekonomia krisiaren kudeaketa kaxkarra estaltzeko baliatuz.

Dena den, anexio fisikorik gertatu ez bada ere, mugimenduak hasiak dira. Nazioarteko zenbait ekintzailek ohartarazi dute Google Maps zerbitzuak Palestina ezabatu berri duela bere mapetatik. Palestinar herriari "iseka" egitea dela eta "Google Israelgo Gobernuaren garbiketa etnikoaren konplize" dela salatu dute. Palestina mapetara bueltarazteko eskaerak milioitik gora sinadura lortu ditu egun gutxian. Munduaren kolonizazio garaietan bezala, kartografiaren atzeko interes militarrak agerian utzi dituzte.

OLATU ESPANTSIONISTA


Eternitatera kondenatutako gatazka dirudi Palestinaren eta Israelen artekoak, ertz, ikuspuntu eta sufrimendu askorekin. Ez da ariketa erraza orri gutxitan Palestinak pairatu duen kolonizazioa laburtzea. Ezer argi badago ordea, paralelismo biblikoa eginez, David eta Goliaten arteko borroka dela. Palestinarrek aspaldi adierazi zuten beren pentsamoldea: existitzea bera, erresistitzea da.

Joan etorri askoko lurraldea izan da gaur egun Israelgo Estatuak hartua duena, inperio handien menpe egondakoa, izan otomandarrak edo britainiarrak. 1948an, gaur egun Netanyahu buru duen estatua sortzean, ordea, lurraldearen gehiengoa eskuratzen hasi ziren biztanleriaren parterik txikiena ziren judutarrak, horretarako milioika palestinar beren etxeetatik bota eta historiatik ezabatuak diruditen terrorismo ekintzak egin bazituzten ere.

1967a mugarria izan zen Israelen espantsionismoari dagokionez. Lurralde palestinar gehiago okupatzeari ekin eta kolonoak sartzen hasi ziren bertan. Netanyahuk orain proposatzen duen hirugarren anexioa 1967an okupatutako zenbait lurralderena da. Lehenengo anexioa 1980an gertatu zen, Ekialdeko Jerusalemen –NBEk adierazi bazuen ere hiri hori ez zegoela Israelen edo Palestinaren esku– eta bigarrena hurrengo urtean izan zen, Golango Gainetan.

Hortik aurrera Israelen estrategia beti izan da bera: gailentasun militarra eta bortizkeria normalizatuz Palestina apurka-apurka mehetzen joatea, gosez hiltzen uzten den presoa bezala. Baina palestinarrak ez dira geldirik geratu bere amaiera noiz helduko, hortzak erakutsi dituzte sarritan, mundu osoko arreta eta elkartasun keinuak lortuz. Kontaezinak dira urteetan palestinarrek egin dituzten protesta baketsuak, baita erresistentzia armatuak ere. Urteon balantzea, ia familia guztietan dauden martiriak zenbatuta egin daiteke: ehunka mila hildako eragin ditu Israelek, gehienak zibilak.

Hirugarren anexioaren mehatxuak berez ezegonkorra den egoera are gehiago ezegonkortu du. Publikoa egitean proposamenak nazioarteko fokua bereganatu bazuen ere, asko dira



orain anexioa bertan behera geratuko dela uste dutenak. "Netanyahuk ez du anexiorik aurreikusi. Ez dago maparik, ezta egutegirik. Ez dago Parlamentura eramateko zirriborrorik. Joan diren hamazazpi hilabeteetan hitzemandako anexioa hauteskundeak irabazteko promesak baino ez zirela erakutsi du", dio Anshel Pfefferrek Haaretzeko artikuluan.

Iritzi berekoak dira Amos Harel eta Amir Tibon analistak. Netanyahuren gobernuak duen barne-gatazkaren aurrean, anexiorik ez dela emango uste dute. Dena den, Netanyahuk "anexio sinbolikoa" egitea litekeena dela diote, bertan behera geratu denaren sentsaziorik ez emateko.

Palestinaren etorkizuna ez da ziurra, ezta Israelgo Gobernuaren erabakia ere. Egutegian seinalatutako egun gorria heldu zitzaion Israeli, baina ez zen deus gertatu. Oraindik ikusteko dago Israelen politika espantsionistak eta AEBetako inperialismoak lur zati hori bereganatuko duten edo ez, nazioarteko legedia bere alde baitu Palestinak, baita taupada internazionalista ere. Esperientziak erakutsi du ordea, Israelen asmo kolonialistak ez direla sekula gutxietsi behar. Hobe datorkien abagune politiko batean joka dezakete agintari israeldarrek uztailaren 1erako aurreikusia zuten karta hori. ●

MUGEN BILAKAERAREN HISTORIA LABURRA

1897 / Munduko Erakunde Sionista sortu zuten juduen aberria Palestinan sortu behar zela aldarrikatzeko.

1917 / Balfourren Deklarazioa: Erresuma Batuko Kanpo Harremanetarako idazkari James Balfourrek onespena eman zion Palestinako lurretan juduen aberria sortzeari.



1947 / NBEren banantze plana: Mendebaldeko Palestina bi estatutan banantzeko plana onartu zuen NBEk. Buruzagi judutarrek onartu egin zuten plana, Palestinako buruzagi arabiarrek ez, eta matxinadak hasi ziren.

1948 - 1949 / Arabiar-israeldar guda: Komunitate juduak independentzia aldarrikatu zuen Israelgo estatu berrian. Gerrak eztanda egin zuen Israelgo armadaren eta mugakide zituen herrialde arabiarren artean.

1949ko otsaila-uztaila **/ Israelek eta estatu arabiarrek armistizioa sinatu zuten**, Israelek Palestinako lurren %78a kontrolpean atxikiz. NBEren datuen arabera, 700.000 arabiar palestinarretik gora bilakatu ziren errefuxiatu epe hartan.

1967 / Sei Eguneko Gerra: Guda eginez airetik, itsasotik eta lurretik, Israelek Egiptoko Sinaiko Penintsula eta Siriako Golango Gainak inbaditu zituen. Jordaniaren menpe zegoen Zisjordania anexionatu ez bazuen ere, eskualdea okupatzen hasi zen.

1982 / Israelek Sinaiko penintsula Egiptori itzuli zion, bi estatuek sinatutako bake akordioen ostean. Honenbestez, Egipto izan zen Israel estatu gisa ofizialki onartu zuen lehen herrialde arabiarra.

1987 - 1993 / Lehen Intifada: Gazako palestinarren masa altxamendua hasi zen. Zisjordanian ere desobedientzia zibila eta istiluak orokortu ziren.

1993 - 1995 / Osloko Akordioak: Palestina eta Israelek Printzipioen Adierazpena sinatu zuten, lurraldea bi gobernu autonomotan banatzeko asmoz. Zisjordania hiru eremutan geratu zen banatuta, A, B eta C gisa egun izendatuak: bat Palestinako Aginte Nazionalaren kontrolpean, bestea Israelgo Gobernuarenenean, eta azkena bi administrazioen artean.

2000 / Camp Davideko goi-bilera: Israelgo armada Libanotik irten zen. Camp Davideko goi-bileran bi alderdiak akordio batera heldu ziren, baina akordioak huts egin zuen, eta indarkeriaren gorakadak Bigarren Intifada (2000-2005) eztandarazi zuen.

2003ko apirila **/ Bakerako bide-orria**: Europako Batasunaren, NBEren, AEBen eta Errusiaren artean bakerako bide-orria kaleratu zuten, Palestinako Estatua sortzeko egutegia markatuz.



2005 / Gazatik Kaleratzeko Plana: Israelgo Defentsa Indarrek Gazako zerrendatik eta Gazako lau asentamendutik alde egin zuten.

2011ko iraila **/** Palestinak eskaria luzatu zion NBEri, estatu izaera onartu eta erakundeko kide izateko.

2020 uztaila **/** Israelek Zisjordaniaren heren bat anexionatzeko plana abian.

Iturriak: BBC, CNN, Al Jazeera, Israelpalestinian.procon.org, London Times, NY Times, WSJ, NBE
Egileak: Good eta Column Five / Euskaratzea: ARGIA

Tertzioak usteldu egin ziren



NAGORE IRAZUSTABARRENA URANGA

Ardenak (Frantzia), 1643ko maiatzaren 19a. Espainiako tertzioak menperatu zituzten Rocroiko guduan. Azken mendean Europan nagusitu zen infanteria eredua gainbehera etorri zen eta, azkenean, 1704an Filipe V.a erregeak ofizialki desegin zituen.

Tertzioak XVI. mendearen lehen erdian sortu ziren, baina historialariak ez datoz bat data zehaztean. Eta ez datoz bat infanteria baliosterakoan ere. Espainiako historiografiak tertzioen lana goraipatu izan du beti: Europako lehen ejertzito profesional modernotzat dute, eta gizon haien ohorea, erregearekiko leialtasuna eta fede katoliko sutsua nabarmendu izan dute. Soldaduak ondo prestatuta eta ordainduta zeuden eta, gainera, taktika militar berritzaileek gidatuta. "Tertzioetako infanteriaren eraginkortasun izugarria arma zuriak (pikak eta ezpatak) eta suzko armak (arkabuzak eta mosketeak) konbinatzean zetzan" idatzi zuten 2006an Martínez Lainez eta Sánchez de Toca y Catalá historialariek *Tercios de España. Una Infantería legendaria* lanean. Augusto Ferrer-Dalmau margolariak –goiko koadroaren egileak–, porrotean ere loriatzen ditu: "Rocroiko guduak egiaztatzen du ejertzito handien balioa porrotaren bidez ere idazten dela". Hitzok kutsu zaharra izan arren, 2011koak dira.

Historialari frantziar, anglosaxoi eta herbeheretarrek, aldiz, tertzioen inguruan legenda beltza zabaldu zuten, batez ere Filipe II.aren erregealditik aurrera: tertzioek konkistatutako lurraldeak eta jendeak gupidagabe arpilatu eta suntsitzen zituzten. Espainiarren ikuspegitik, garaituen kexak ziren horiek, Espainiaren irudi politikoa zikintzea bilatzen zutenak. Orduan, Filipe V.ak zergatik erabaki zuen 1704an ejertzito garaitezin hura erreformatzea, horretarako Frantzia edota Prusiako armak eredu hartuta, hau da, arerio menperatu bekaiztiak eredu hartuta?



AUGUSTO FERRER-DALMAU

ROCROI, AZKEN TERTZIOA, 2011.

Espainiar inperioaren gainbehera orokorrak, jakina, tertzioei ere eragin zien. Baina, nagusiki, barruko ustelkeriak jan zituen pixkanaka. Tertzioen buru ziren kapitainek soldaduei ordaintzeko diru -kutxetan eskua sartzen zuten ahal zuten guztietan. Hala, teorian hain ondo ordaindutako soldaduak soldatak jasotzeko 30 hilabeteko atzerapena izatera iritsi ziren. Zenbaitetan matxinatu egin ziren; gehienetan, armadak ordaintzen ez ziena arpilatzeen bidez jasotzen ahalegintzen ziren. Eta soldaduen jarreran ez ezik, kopuruan ere eragin zuen ustelkeriak. Kapitainek ez zuten ofizialki hildako edo desertatutako soldaduen berri ematen, haiei zegozkien soldatak eskuratzeko. Hala, tertzioak osatzen zituzten benetako soldadu kopuruak ezin dira jakin. Baina ejertzitoko ordenantzetan praktika hauen aurkako arauak ugaritzeak adierazten du arazoa geroz eta larriagoa zela. Rocroiko guduan, ofizialki, tertzioetako 22.000 soldaduk hartu omen zuten parte, baina, zenbat izan ziren benetan?

1704an ofizialki desegin arren, gurean, adibidez, "baskongadetako tertzioak" esan zitzaien 1860an Espainia-Maroko gerran eta 1868an Kubako Gerran parte hartzeko errekrutatutako taldeei. Gaur egun, oraindik, Espainiako Legioan 4 "tertzio" daude, garai hartako lau buruzagiren izena dutenak: Juan de Austria, Alejandro Farnesio, Gran Capitán eta Duque de Alba. Eta VOXeko Javier Ortega Smithek, esaterako, bere hitzaldi eta ekitaldietan behin baino gehiagotan erabili du Flandriako Tertzioen topa: "Espainiari traizio egiten dionak ez dezala barkamenik izan". ●



ARKADIA FIRMA ARCHEOLOGICZNA

Neolitoko giza irudi "berriak"

Jordaniako Kharaysin aztarnategian suharriz egindako dozenaka giza iruditxo topatu dituzte, duela 9.000 eta 10.000 urte ingurukoak, Juan José Ibañez buru duen Espainiako CSIC ikerketa agentziako arkeologo taldeak *Antiquity* aldizkarian jaso duenez. Suharria lanabesak egiteko erabili ohi zuten, baina pieza horietan egindako hozkek ez dute erabilera praktikorik; gizakiak irudikatzea omen zen asmo bakarra, hau da, hozkek gizakien lepoa eta gerria markatzea, eta erritualetan erabiltzen zituztela uste dute adituek.

Berez, gizakiak pare bat milurte lehenago hasi ziren, animaliez gain, beren burua ere irudikatzen. Beraz, ez dira giza irudirik zaharrenak. Baina pieza hauen berrikuntza eta aurkikuntzaren balioa, materialean dago: aurkitu diren Neolitoko suharrizko lehen giza figurak dira. ●

AKTUALITATEAREN GAKOAK 2020

Krisi globalak indibidualki kolpatutakoen erantzun kolektiboa

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Bi hilabete baino gehiago egon gara geldi. Eduki gaituzte kieto. Hasieran askoren buruetan uste dut zegoela "ondo etorriko zaigu pare bat astez erritmoa jaistea", bati baino gehiagori entzun nion martxoa erdialdera "bizi-erritmo horretan ezin genuen segi eta honek emango digu irakasgaia". Ez dut uste buru horietan horrelako irakasgairik zegoenik. Erritmoa ez da jaitsi, askorenak gora egin duela iruditzen zait, estresa sumatzen da giroan, informazioaren saturazioa, batzuk familiaren zama dominatu ezinda, besteak ditxosozko telelanari neurria hartu ezinda, begirada guztiak gainean dituen eta osasun neurri guztiak hartu beharragatik lan bikoitza egin behar duen tabernaria... ARGIAk abuzturako irakurketa lasaia proposatzen du: *Aktualitatearen Gakoak*. Gai protagonista, badakizu.

Denok kolpatu gaitu COVID-19ak. Modu ezberdinetan. Baina denok horren barruan geratu gara oso ni, oso norbera, oso indibidual, oso bakarrik. Etxean, bakoitza bereari nola heldu begira. Gu bezala borrokatzeko ia aukerarik gabe. ARGIAk argitaratutako liburuxkan aztertzen da gizartearen arlo desberdinetatik mundu mailako osasun-krisi hau eta beronek arrastan dakarren gizarte- eta ekonomia-krisia. Desazkundea, zaintza, hezkuntza, lana, generoa, migrazioa, elikadura burujabetza... dira sakonean landutako gaietako batzuk eta begiratuko zaie gertatutakotik, aurreikuspenetatik, udazkenean etor daitekeenetik.

Joseba Larratxe da aldizkari bereziaren azala ilustratu duena. Beti bezain fin. Egilea identifikatzeko moduko ukitu pertsonalarekin eman nahi izan dio forma, kolorea eta irudia datorkigun COVID-19aren olatuari eta bere aitzinean kolpeari aurre egiteko auzolanean ari diren herritarrei. Zaila zait imajinatzea laurogei orriko aldizkari baten laburpen hoberik.



IRAILERA ARTE ASTEKARITIK AGUR. Hauxe duzue udako opor aurreko azken zenbakia. Irailaren 6ko astean jasoko dugu hurrengo astekaria postontzian. Bitartean, *Aktualitatearen Gakoak* aldizkaria irakurriz gozatzea desio dizuegu. Interneten abuztuan ere albisteen jarraipena egingo dugu astelehenetik ostiralera.

AURTEN PREZIO BAXUAGOA

ARGIA Jendeak etxean jasoko du *Aktualitatearen Gakoak* aldizkari berezia abuztuaren 9ko astean, postontzian. Baina oraindik ARGIA Jendea ez denak eros dezake dagoeneko, ARGIAren interneteko azokan (azoka.argia.eus helbidean). 5 euro jarri diote aurten aldizkari berezi honi prezioa. Prezioa jaistea erabaki du lantaldeak, ez aldizkariaren kostua jaitsi delako, baizik eta lortu dutelako publizitatearekin gastuei aurre egitea. Nahiago izan dute, beraz, kalitatezko kazetaritza independentea herritarrei gehiago kobratuz gutxiagorengana iristea baino, finantzatzeko beste forma batzuk bilatzea eta prezioa jaitsita ahalik eta jende gehienarengana heltzea. ●

"BIZITZA BENETAN GOZATZEKO TOKI BAT IZAN DADILA"

Enara Iruretagoiena

Ekonomia sozial eraldatzailearen sarea den Olatukoopeko koordinatzailea, Hamaika Telebistan:

Normaltasun berria normaltasun zaharraren oso antzekoa da. Estrategia batzuk martxan jartzen ez badira okerrera egingo du, martxan ziren nekropolitikak, hau da, heriotza erdigunean jartzen dutenak, krisi honetan agerian geratu direlako. Autoritarismoa eta zentralizazioa indartu dira, eta Olatukoopetik pentsatzen dugu bizitzak erdigunean jartzeko benetako tresnak, baliabideak, praktikak eta ausnarketak bultzatzea garrantzitsua dela. Hori da gure helburuetako bat.

Garrantzitsua da praktika berritzaileak eta eraldatzaileak abian jartzea. Lan ordainduaren kasuan, ohikoa da kapitala erdigunean jartzea eta horrek ez du laguntzen bizitzak erdigunean jartzen, talka bat badago. Ekonomia sozial eraldatzailetik bultzatu nahi dugu badaudela beste era batzuk antolatzeko. Helburua da bizitza izan dadila benetan gozatzeko toki bat, harremanekin eta komunitatearekin. Lehenengo itxialdian ez geunden prest, eta aurrera begira ere, ez badira estrategia batzuk abian jartzen azkar, ez gara prest egongo. Ikusi ditugun erronka nagusiak hauek dira: zaintza bera da lehena. Historikoki emakumeok gara zaintza lanak egiten ditugunak eta zaintza ikusgarri bilakatu behar dugu. Bestalde, kontziliazioa gezur handi bat da. Ez dago benetako tresnarik bateragarri izan daitezen lan ordaindua eta zaintza lanak. Ezinbestekoa da mutualismo tresnak garatzen joatea, modu komunitarioan egin diezaiogun aurre benetan erronka potolo honi. Garrantzitsua iruditzen zaigu une honetan bakoitzak bere ahalmenen arabera komunitateari ematea. Eta azkenik, sareak sustatzea: ezinbestekoak izango dira datozen garaiei eusteko".

MUGAK HESITU DENON ONERAKO



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Zuhaitz eta zuhaixken bidez mugak hesitzen direnean intsektu polinizatzaileak %70 ugaritzen dira.



Erleak eta gainontzeko intsektuak, txoriak eta hegaztiak, eta bukatzen ez den abar bat galzorian daudela esatea boladan dago. Badakigu gure iraupenerako nahitaezkoak direla: polinizatzaile lanetarako fruituak eta haziak sortzeko, ekosistemen orekari eutsi eta izurriak eragozteko, eta abarretarako. Era berean badakigu geu ari garela ekozidio hori sustatzen, gero eta nabarmenago. Beraiek hiltzen dituen gure jokabideak (pestizidak, kutsadura...) geu akabatuko gaitu. Gure izaeraren osagai senide-hiltzailea eta suizida da.

Jar diezaiogun hesi bat izaera horri, jokabide horri. Horixe bada irtenbide egoki bat. Hesitu zure sailak. Garai batean sail guztiek hesia zuten ertzean, mugan. Hesia bera zen muga. Itxitura egiteko hesiaren parte ziren zuhaitz eta zuhaixken adarrak erabiltzen ziren, zotz-hesiak osatuz. Laharrarekin (*Rubus fruticosus*) berarekin lahar-hesia, berro-hesia edo lapar-hesia egiten zen. Hesiaren (kultur?) helburu (kultural?) nagusia muga eta itxitura egitea bada ere, bere izaeraren axolazkoena landare anitzez osatua izatea da: zuhaitz, zuhaixka, sasi, belar, igokari, bizkarroi eta abar. Landaretze berezi horrek animalia eta bestelako izaki mordo bati eusten dio. Horiek denek ekosistema bat osatzen dutela esan daiteke. Elkarren beharra dute, lur bizi ekarkorra, inguru oparoa eta bioaniztasun aberatsa atxikitzen dutelarik.

Nekazaritza hesiak, kultur hesiak, alegia, desagertzen ari dira, lehenaz gain. Frantzian 1950etik hona milioi eta erdi kilometro inguru landare hesi galdu dela diote.

Ecology Letters aldizkarian argitaratu da Europa osoan egindako ikerketa erraldoi baten emaitza. Bertan, aurrez egindako 1.515 paisaiaren ikerketak biltzen dituzten 49 lan jaso dira. Egileen artean dago, adibidez, susmo orotatik at dagoen CSIC, Espainian ikerketan dabilen erakunde publikorik handiena. Garbi diote: "Hesiak desegin eta lurrak berdintzen dituen nekazaritza intentsiboak izugarri murrizten du bioaniztasuna, animalietan bezala landareetan. Mugen dentsitate handiagoa duten eremuetan, egiaztatu dugu artropodo polinizatzaileen eta izurriteen kontrolatzaile naturalen ugaritasuna %70 eta %44 hazi direla hurrenez hurren. Era berean, %50 baino gehiago laboreak dituzten paisaietan muga-hesien dentsitatea handitzearekin ekoizpena hazi dela ikusi dugu". Lan horretan parte hartu duen Espainiako Natura Zientzien Museo Nazionaleko Mario Díaz ikerlariaren arabera: "Sintesi horrek berresten du ekosistemetan aniztasuna sustatzeak biodibertsitatea hobetzeaz gain nekazaritza ekoizpena areagotzen duela, eta iraunkorragoa egiten du".

Hemen nekazaritza sustatzea, ingurumena zaintzea eta gu denon bizitza kalitatea hobetzea nahi duela dioenak badaki zer egin behar duen: landare hesiak berpiztu eta bultzatu. Benetako bultzada, hau da, jarri diru publiko gehiago eta lurjabe gehiago landatzera! ●



ARAKIL

ANTZINAKO HAZI ETA FRUTARBOLA BARIETATEAK BERRESKURATZEN



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Arakilgo Udalak eta Arrea Agroekologia Elkarteak bailarako bioaniztasuna babestu eta berreskuratzeko proiektua abiatu dute urte honetan. Tokiko landare eta frutarbolen haziak biltzen ari dira, hazi horiek berriz bailaran erabiltzen hasi eta zabaltzeko. Tokiko nekazaritza sustatu eta elikadura eredu iraunkor baterantz pausoak emateko apustuaren baitan abiatu du proiektu hau Udalak. "Ideia ez da barietateak berreskuratzea museoan egon daitezen, baizik eta horiek berriro erabiltzen hastea, eta bioaniztasuna berreskuratzea", azaldu digu Ester Montero Arrea elkarteko kideak.



HAZIEN ETA FRUTARBOLEN BILKETA

Arakilgo 12 herrietako jendearekin zuzenean elkartuz lortu dituzte bailarako antzinako hazi barietate zenbait. "Hasieran gehienek ezer ez daukatela diote, baina gero hasten dira gogoratzen bazegoela beraien etxe ondoan ez dakit zein frutarbola zahar, edo bizilagun batek bazituela antzinako haziak...". Frutarbola asko ari dira biltzen, Monterok dioenez: horietako asko erdi utzita zeuden, zaintzen zituzten pertsonak hil ondoren garrantzia handiegirik eman ez zitzaielako.

Landare eta frutarbolen haziak biltzeaz gain, horien maneiuarekin lotutako ezagutza eta ohiturak ere jaso nahi dituzte proiektuan. "Haziak ez dira ondare genetiko eta ekologikoa soilik, ondare kulturala ere badira: nekazaritza kulturaren eta gastronomiaren parte dela ahazten dugu maiz". Eskualdean zuzeneko hartu-emanetik lortzen ari diren haziez gain, lehenagotik zentro publikoetan gordeta eta eskualdean desagertuta zeuden bertako haziak ere hitzarmen bidez eskuratzen ari dira, horiek biderkatu eta berriz erabiltzen hasteko.

BOLUNTARIO BILA

Biltzen eta berreskuratzen dituzten hazi eta frutarbolekin katalogo bat eginen du elkarteak, ondare hori herritarrei ezagutarazteko. "Lursail eta baserrietan haziok biderkatzen ari dira honezkero zenbait boluntario, eta aurrera begira horretarako konpromisoa hartuko duen jende gehiagoren bila gabiltza". Hainbat formazio saio eta tailer eginen dituzte haziak biderkatzeko eta frutarbolen txertaketak nola egin ikasteko.

"Desagertzetik libratu nahi ditugu Arakilgo antzinako barietateok, barietate komertzialen ondoan ez baitute inongo inbidiarik: ez zapore aldetik, ezta ingurura egokitzeko duten ahalmenaren aldetik". ●





200 urte beteko dira abuztuan Jose Mari Iparragirre jaio zenetik eta haren bizitza kontatuko lukeen pelikula biografikorik gabe jarraitzen dugu, *biopic* baterako materiala soberan dagoen arren: gudari, kantari, seduktorearen historia dago, batetik, heroi nazional bihurtu zen Iparragirre hura. Baita beste artistekin oilartuta, dirua alferrik galtzen eta familia abandonatzen bukatu zuen Iparragirre ilunagoa ere. XIX. mendeko euskal *rockstar* honen pelikula egiten denean faltatu ezin duten eszena batzuk proposatzen dizkizuegu jarraian.

GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

URRETXUKO BARDOAREN 200. URTEURRENA

Hamar eszena Jose Mari Iparragirreren *biopic* bat filmatzeko

1 *Berunarekin jolasten zuen nerabea*

Edozein kantatan pistolak eta txarraskak aipatzen dituzten rapero horietaz barre egin behar duzu Iparragirrerenak irakurrita, ez baitirudi urretxuarrak denbora askorik galdu zuenik auzoko mutil gogorrena bera zela erakutsi nahian. Hitzezko balak baino gehiago gustatzen zitzaizkion berunezkoak. 14 urterekin, amari eskolara zihoala esan eta gerra egitera joan zen karlistekin. Eta tira eta tunba, bi aldiz zauritu zuten, etsaiaren eskuetan erortzeko puntuan egon zen, baina bere ausardiari emandako sari gisa edo, Karlos Maria Isidro Borboikoaren ohorezko guardian bukatu zuen, Bergarako besarkada traiziotzat jo eta Dantxarineatik Ipar Euskal Herrira ihes egin aurretik. "Nerabezaro konplikatua" deituko litzaioke gaur egun.

2 *Paris nous appartient*

Hurrengo eszenan oraindik *teenager* itxura daukan Iparragirre agertzen zaigu, gitarra bizkarrean duela Frantzian barrena. Espainiako erregegaiaren guardian izan du lehenbiziko kontaktua musikarekin, gazte alai, bizi eta segaila da, baina "eskola ona" falta zaio oraindik. Golak sartzeko gogoz joan da Hexagonora, hori bai; eta kontaktuekin zorte ona dauka: 19rekin "emakume noble eta ospetsu baten gomendioz", aristokraziako beste gizon baten etxean urtebete pasako du, frantsesez ikasten, Lamartine eta Chateaubriand irakurtzen; geroago, jada Parisen, La Rochejaqueleineko markesak kantu-irakasle apartekoa aurkituko dio, Gilbert-Louis Duprez, operako tenore entzutetsua.

"Gitarra zahartxo batekin" etorri zen gazte honen izena, 22 urte dituenerako, ezaguna da Parisko saloi eleganteetan, eta izango da Frantziako hiriburutik kanpo ere, 1843an hainbat lekutatik pasako den *tourra* hasiko baitu –zuzendariarentzat oharra: parte honek *road movie* kutsua hartu beharko luke–: Alpeetako bainu-etxeak, Suitza, Austria... *like a rolling stone*.

Patriarka beneragarri gisa irudikatu zuen Anselmo Gineak Urretxuko artista Ameriketatik itzuli zenean. Bestelakoa zen errealitatea ordea: zahartuta eta dirurik gabe, arlote bizimodua izan zuen azken urteetan.

3 *Libertinajearen fruitua*

Gaztea da, talentua du, ahots ona, guapoa da... pelikularen hurrengo zatian, logikoki, tenperaturak gora egin behar du. Handik hona dabilen bitartean Iparragirrek piztuko dituen interes guztiak ez dira musikalak izango. Publikoaren parte batek jakin nahi du urretxuarrak gitarra bezain ongi jotzen ote duen, zera... larrua. Eta garai hartan maitale bat baino gehiago izan zuela nahiko segurua den arren –besteak beste Caroline Duprez, irakasle izan zuen musikariaren alaba–, libertinaje-sasoi honen arrasto material bakarra geratuko da: Sophie-Adèle Piquart izeneko emakume gaztea ikusten dugu pantailan, jasan ezin diren minen artean haur batez erditzen. 1847. urtea da. Hamar urte pasa beharko dira Iparragirrek aitortu arte bera dela aita.

4 *Bandera gorriak eta arbolak*

Gogoratzen duela ez asko gure trobadoreak irakurtzen zuen Lamartine abizeneko tipo hura? Ba, 1848an Parisko Herriko Etxearen parean dago Frantziako azken erregearen kontra altxa diren herritarrei hitz egiten: Bigarren Errepublika proklamatuko du baina, hori bai, esango die igual pixka bat pasatzen ari direla hiru koloreko trapuaren ordez bandera gorria jarri nahi horretan. Nolanahi ere, *Marseillesa* entzuten da kaleetan, "askatasunaren zuhaitzak" landatzen dira nonahi eta 28 urte dituen Jose Mari kriskitinak jotzen dabil iraultza erdi liberal erdi sozialista horren erdian –baten bat harrituko da, karlistekin gerra egindako norbait dela kontuan izanda; gidoian dialogoren bat jarri beharko litzaioke esanez bera, doan lekura doala, herriaren alde dagoela; kontuz epikarekin pasa gabe, hala ere–.

Iparragirrek bi gauza aterako ditu garbi samar saltsa horretatik: ereserki bat egiteko ideia eta arbolaren sinbolismoa. Gero asuntua nahiko azkar joango da pikutara: Luis Napoleon agertuko da, lehenbizi tragedia, gero fartsa, badakizue; eta gainera hori beste pelikula bat da. Gu kontatzen ari garen honetan, hain zuzen *Marseillesa* kantatuz populua aztoratzeagatik, Ingalaterrara desterratuko dute Iparragirre. Etorriko zaionaren aperitifa da –pazientzia pixka bat, geroxeago kontatuko dizkizuegu autoritateekin izango dituen saltsak–.

5 *Nazio ibiltaria naiz*

1851, Londres, Erakusketa Unibertsala. Fermin Muguruzak *Brigadistak Sound System* argitaratzeko 148 urte falta dira, baina Iparragirrek nolabait aurreikusten du Internazional Musikalaren kontzeptua, Italiako konpainia batekin euskal abestiak doinu tiroldarrez performatzen ari baita. Crossoverrak pasada bat izan behar du, Manuel Mazarredo jeneral liberal bilbotarraren arreta deitzea lortuko baitu.

Kontzertu ostean izango duten elkarrizketari esker lortuko du gure koblakariak Euskal Herrira itzultzeko pasaportea eta 1852rako Bilbon dago, jende inportantearen saloietan kantari. Amari bisita egiteko ere probestuko du itzulera: hemezortzi urte pasa dira eskolara zihoala esanda gerrara joan zenetik, bota ditu tiroak, ikasi ditu lau edo bost hizkuntza, iraultza ezagutu du, utzi du haur bat atzean... Gidoia bide emozional tipiko-topikoegitik ez eramateko, twist komiko bat sartu behar da hemen, amaren ahotan: "Jose Mari, hau al da eskolatik etortzeko ordua?".



1848ko iraultza erdi liberal erdi sozialistak arrasto sakona utziko du Iparragirrerengan: ereserki bat egiteko asmoa eta askatasuna sinbolizatzen duen arbolaren ideia momentu hartakoak dira

6 *'Gernikako arbola': ordena publikoa aztoratu zuen 'hit'-a*

Garai horretan konposatuko du *Gernikako arbola* famatua, nahiz eta puntu honetan beste pelikula baterako materiala ere badagoen: dokumental konspiranoiko bat, aditzera eman dezakeena kantaren doinua Blas Altuna piano-jotzaileak konposatu zuela eta hitzak berriz Jose Migel Arrieta Maskaruak. Nolanahi den, ereserkia Iparragirrek egiten du ezagun eta lortzen duen arrakasta ez da kasualitatearen fruitu. Dena dauka pieza horrek: karlistek hainbeste maite duten jainkoa; liberalak tenk jartzen dituen mundutasuna; etorriko diren abertzaleen sinbolo nazionala; 48ko iraultzatik eta gerra bat bizi izanagatik Iparragirreri geratu zaion askatasun eta bakerako gogoa... Garai hartan Youtube eduki izan balute bideoklipak milioika erreprodukzio ziurtatuta izango zituen. Ez zeukatenez, erromerietan milaka lagun elkartzen ziren.

Gipuzkoako mendiren batean 6.000 lagunen aurrean kantatu ondoren, jendeari odolak nola berotzen zitzaizkion ikusita –foruen alde bizitza emango zutela oihukatzen bukatu omen zuten–, Euskal Herrira itzultzeko txartela eman zion jeneralote berak, Mazarredok, Iparragirre atxilotzeko aginduko du. Tolosako kasernan edukiko dute –*Zibilak esan naute* kanta orduko bizipenez ari da, "negar egingo luke / nere amak baleki" esaten duenean– eta gero Euskal Herritik kanporatuko dute. Labur eta gaur egungo publikoak ulertzeko moduan esateko, XIX. mendeko Valtònyc ere izan zen Iparragirre.

Bi aldiz erbesteratu zuten: lehen aldiz Frantziatik, Marseillesa kantatuz populua aztoratzeagatik; eta bigarrenean Euskal Herritik, Gernikako arbola-k jendea nola pizten zuen ikusi ondoren. Bera zen XIX. mendeko Valtònyc



Pancho Bringasek irudi honetan jaso zuen Iparragirre Bizkaiko azken mugaraino eraman zuten unea. Atzean, erdi ezkutuan ikus daitezke bi guardia zibilen kapeluak eta baionetak.

7 *'Beef' bat Xenpelarrekin*

Bizkaiko *Far West*-eraino eramango dute txapelokerrek beraz. Eszena hori filmatzeko Pancho Bringasek egindako erretratua erabili daiteke, zeinean Xabier Leteren antz ikaragarria daukan planta oneko Jose Mari agertzen den lehen planoan, atzean, pixka bat ostenduta baina baionetak bistan, bi guardia zibil dituela. Kantabria, Asturias, Galizia eta Portugal ditu zain. Bi urte pasa arte ez diote Euskal Herrira itzultzen utziko, baina bueltatzen denean, superbanda baten ideiarekin dator: Xenpelar bertsolariari proposatuko dio elkarrekin zerbait egiteko. "Nik soinua jo eta hik bertsoak kanta, ederki biziko gaituk", bota omen zion, Julen Gabiriak idatzitako biografian (Elkar, 2001) kontatzen duenez.

Errenteriarrak ezetz erantzun ordea eta, oilartuta, zera atera zitzaion Jose Mariri: "Hik beti doinu zaharrean kantatzen baitituk bertsoak. Ez izan gauza nire doinu berriaz bertsoak egiteko. Hargatik ez duk nirekin etorri nahi". Boxeo dialektikoan aritzeko bere pisuko norbait tokatu zitzaion aurrean: "Iparragirre abila dela / askori diot aditzen..." hasten den bertsoa dinbi bati bueltan emandako danba gisa ulertu behar da. Eskerrak jende honek ez zeukala Twitterrik.

8 *Anjela Kerejetaren maitasuna eta sufrikarioa*

Pelikula honek *spin-off* garbi bat dauka, beharbada baita hainbat denboraldi tan garatu daitekeen telesail bat ere. Protagonista Anjela Kerejeta izango litzateke, Iparragirreren emaztea. 35 urte zeuzkan kantariak hura ezagutu zuenean. Kerejetak 17. Iparragirre *celebrity* bat zen ordurako, Euskal Herriko artista famatuenetarikoa. Anjelak, berriz, Tolosako taberna batean zerbitzari lan egiten zuen Urretxuko bardoa bertsotan deklaratu zitzaionean. "Bere dena gustatzen zitzaidan, oinetatik bururaino", kontatuko dio *La Vasconia* aldizkariari musikaria hil eta urte askora, Gabiriak jaso zuenez.

Oraindik kariñoa zion, nahiz eta artistak gorriak pasarazi zizkion, batez ere Ameriketara joan zirenean. Negozioetan porrot eginda –ez aldatu katez, hori gero kontatuko dugu–, Euskal Herrira itzultzeko aukera izango duenean –hori ere geroxeago, pazientzia–, zortzi umerekin abandonatuko du Iparragirrek, haietatik lau 10 urtetik beherakoak. Eta umeek badute mania bat: egunean behin baino gehiagotan jan nahi izaten dute. Kerejeta konturatuko da bakarrik geratzen bada etorriko zaion larriaz, "ez zaitez joan, Jose Mari" esango dio, baina bizardunak kasurik egin gabe hartuko du bueltako barkua. Eszena dramatikoa da. Are dramatikoagoa bihurtuko dena, behin Euskal Herrian denbora bat igarota, jakingo duenean emaztea beste gizon batengana arrimatu dela. Familia osoa ekartzeko asmoa bertan behera utziko du orduan. Iparragirreren trapu zikinenak ez dira Alegiako Ramon Batistari eskainitako kantakoak, bistan denez.

9 *Amerikako txistuak, ardi galduak eta debaldeko tragoak*

Gauzak ez zuen ba itxura txarrik Ameriketara iritsi zirenean: ozeanoa zeharkatuz hara eraman dituen bergantina Rio de la Platara (Argentina) iritsi denean, moila bete euskaldun dute zain, Iparragirreri bibaka. Ontzitik portura joateko txalupan *Gernikako arbola* kantatuko du, txapelak airera jaurtitzen dituzte pozaren pozez han bildu diren herrikideek. 1858ko azaroan mundu berrian egingo duen lehen kantaldia ere arrakastatsua izango da, baina handik gutxira antzoki handi batean egingo duen bigarren saioan zerbait gaizki aterako da. Txistu egingo diote eta Iparragirrek hondoa joko du. Ez du Ameriketan egongo den bitartean antzoki batean berriz kantatuko.

Eta musikatik kanpo, Jose Marik ez du bi erreal balio. "Txotxoloa zen negozioetarako", esango du Kerejetak; hori bai, artzain lanetan saiatuko denean, anti-espezismoaren aurrekari bihurtuko da: ardiek alde egiten ziotenean utzi egiten zien joaten, haiek ere foruak edukitzea nahi omen zuen. Negozio urbanitagoetan ere, antzeko parezido: Montevideon (Uruguai) abian jarriko duten *Café del Guernicaco Arbola*-k erreka joko du. Hori gertatzeko tendentzia izaten dute tragoak ez kobratzeko ohitura –bestalde erabat txalogarria– duten taberna guztiz gehienek.



10 *"Baina bihotzak dio..."*

Horrelako kontuetan dabilela bukatuko da itsasoz bestaldean Bigarren Gerra Karlista. Desastre bat, lagunok: foruak pikutara eta haiekin batera beste gauza asko. Tartean, *Gernikako arbola* kantatzea debekatuko dute –parentesi bat esateko, honek pentsarazten digula debekuaren afizioa Espainian zezenketak baino errotuago dagoela; eta hori XIX. mendean ez zutela "terrorismoaren apologia" izeneko tramankulua asmatuta–. Total, orain klandestinoa den ereserkiaren egileaz akordatzen hasten dela jendea eta *crowdfunding* deituko geniokeena eginez 40.000 peso bilduko dituztela Iparragirre etxeratzeko –esan dugun moduan, emaztea eta umeak lehorrean utzita–.

Bigarren Gerra Karlistaren ondoren Iparragirre Euskal Herrira ekartzeko asmoak hasten direnean, bakarrik itzuliko da, emaztea eta zortzi seme-alaba ozeanoaren bestaldean abandonatuz

Itzulera, tira, polita da, baina ez espero amaieran denek kontentu bukatzen duten film horietako bat. Hasieran "lagun ahaztezinez inguratuta" ibiliko da, bai, baina patrikan sosik gabe zegoena ez zen garai hartan ere luzaroan bizitzen izenaren kontura. Iparragirre zahar samarra da adinez, baina batez ere, izan duen bizimoduarengatik kaskatuta dago eta ez dio lagunduko bizitzaren azken partean atez ate erdi-eskean ibili beharrak. Historia guztiz ez hondoratzeko, 1880ko otsailekoa izango da pelikula honen azken eszenetako bat. Donostiako Antzoki Zaharrean, leienda izandako gizonaren kondarrak gitarraren gainean okertuta kantari: ahuldutako ahots horretan, aguretutako arpegioetan, oraindik badago Europa erdia liluratu zuen artistaren malko esentziala. Txalo zaparrada handia, teloia jaisten da. Urtebetera, azken boladan bizileku izan duen Itsasoko Zozobarro-Txiki baserrian, Jose Mari Iparragirrek bizi izan duen mendea ikusiko du begien aurrean pasatzen. ●

BAT-BATEKO PANDEMIARI BERTSOTAN

Amildegi ertzean aritzearekin konparatu izan da oholtza gaineko bertsolariaren jarduna. Inork espero ez zuena zen, ordea, amildegiak urrunduko zituenik bertsolaria eta entzulea. COVID-19ak basamortu bihurtu ditu plazak: 500 bertso saio baino gehiago galdu dira lau hilabetean. Bertsolariek eta Bertsozale Elkarteak ahalegin erraldoia egin dute bertsoa testuinguru berrietara egokitzeko, pixkanaka maskaradun entzuleen aurrera itzuli arte, "edozein herriko ez-jaietan".

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA



Ekainaren 5ean Villabonan bertso saioa antolatu zuten Bertsozale Elkarteak eta Lankuk, osasun bermeak betez jaialdia egin daitekeela erakusteko.
GORKA RUBIO / FOKU

Koronabirus aroan jendaurreko lehen saioa Azkoitian egin nuen, ekainean. Aspaldiko partez oholtzara igo eta bertigoarekin batera sentitu nuen: 'Hau zen, hainbeste gustatzen zaiguna'". Jone Uria bertsolaria da mintzo, gaur egun oholtzara igotakoan aurrean ikusten duenaz: "Bitxia da jendea distantziatuta eta maskararekin ikustea. Eta badu bere eragina publikoko aulkiak egituratzeko moduak. Adibidez, Sopelan aurrez galdetu zioten jendeari norekin joango zen, eta horren arabera multzokatu zituzten aulkiak, eta behintzat ez zen entzulea bakartuta ikusten, hiru-lauko multzotan baizik. Entzulea bakartuta eta inorekin erreakzioak partekatzeko aukerarik gabe ikustera ez gaude ohituta, gutxiago festetako saioak izaten zirenarekin. Uda honetako bertso saioek gehiago dute udazkeneko aretoko saioen antza, baina kalean eginda". Publikoa maskararekin ikusteak espero baino gutxiago eragin diola aitortu du: "Uste nuen ez zela erreakziorik antzemango, baina uste dut jendea gogotsu dagoela eta beste era batera helarazten duela erreakzio hori: barre ozenago eginda eta txaloen bidez... entzulea eskuzabalago dago, gu ere gogotsu gauden bezala, eta eskertzen da. Plazako komunikazioaren eta magiaren ehuneko handiena mantentzeko moduan gaude egungo baldintzetan ere". Baina pandemiaren prebentzio neurriek festa giroko bertso saioetan eragindako zurruntasunak baduela bere alde ona adierazi du: "Lehen jaietako saioetan duda izaten zen ea zenbat pertsona zeuden benetan arretaz entzuten, jende asko ibiltzen baitzen atzera aurrera, umeak tartean... Orain, daudenak adi daude".

Bertsolariek plazako ibilian uzten dute garaiaren kronika moduko bat kantatuta. Zeri kantatzen dio egun bertsolariak? "Umorerako egoera asko ekarri ditu konfinamenduak, baina zalantza sortzen zaigu bertsolarioi, oso egoera ezberdinak bizi izan ditugulako eta oso kolpe ezberdinak eman dizkiolako jende eta sektore bakoitzari, eta beraz zer pentsa ematen digu ea egoera bakoitzari zer tarte eskaintzen diogun saioetan, edo duda sortzen da zeri kantatzen diogun minetik eta zeri umoretik...". Konfinamenduaz gain, beste gai hauei buruz ere asko kantatzen dela dio Uriak: "Kulturgileen lan-baldintzei buruz, 'normaltasun' zahar-berri dikotomiari ere dezente kantatzen zaio: zer ez zitzaigun gustatzen lehen, eta nola aldatu dizkigun honek guztiak pentsaera, bizi baldintzak... krisi ekonomikoari ere asko kantatuko zaio bere eraginak nabaritu ahala". Bai gai-jartzaileek eta bai bertsolariek, koronabirusaren gaiari ihes egiteko saiakera egiten dutela dio, baina ezinbestean marra horren bueltan bilatu behar dutela gaien oreka: "Ezin diogu publikoari kantatu ezer gertatu ez balitz bezala, baina ezta ere ezin dugu saioa monotematiko egin, denok baikaude saturatu xamar gaiarekin".

Plazetako bertso saio bitxi hauek oasien modukoak dira bertsolarien agendetan, zorionez, gero eta sarriagoak. Baina basamortua zeharkatu dute bertsolariek oraingo "ez-festetako" saioetara iristeko. Ezagutu nahi nola eten zen kolpean plazetako iturria, eta nola egin zioten aurre eztarriak lehortu ez zitezen?



MARTXOAREN 12AN "PLAZA GELDITU ZEN"... BERTSOLARIAK ETA BERTSOZALE ELKARTEA EZ

Ez zaio berehalakoan ahaztuko aurtengo martxoaren 12a Lanku bertso zerbitzu enpresako langile Marta Agirrezabalari: "Telefonoak jotzen zuen eta bezero bat zen, hurrengo eguneko saioa bertan behera utziko zutela adieraziz. Gero beste bat, gero beste bat... biharamuneko saio guztiak bata bestearen atzetik erori ziren goiz bakarrean. Desoladorea izan zen, paralizatu egin zen plaza". Pentsa, aurreko urteetan hilero 140-170 bertso plaza egiten baziren, zeroraino jaitsi zen kontagailua. Bertso saioak lotzeaz arduratzen den Lanku enpresaren une hartako erantzuna, saioak beste egun batera atzeratzeko eskaintza egitea izan zen: "Baina segurtasun falta handia zegoen eta antolatzaileak ez ziren ausartzen atzeratzera. Panorama oso gogorra izan zen bertsolarientzat eta Lankurentzat. Shockean sentitu ginen".

Uriari ere bertan behera geratu zitzaizkion martxoan, apirilean eta maiatzean zituen saio ia denak. Itxialdiak, ordea, bide berriak zabaltzeko irrika piztu ziela kontatu du: "Zerbait egin behar genuela sentitu genuen, bertsoak presentzia izan zezan itxialdian zehar ere. Uste dut eskertu zela momentuari zegokion eskaintza kultural bat. Hilabete horietan kantatu nuen eta gerora eskertu nuen etxean egon ginen hilabeteetan ez isildu izana, errodajea galdu ez izana". *Etxetik Etxera* izena hartu zuen bertsolari eta gai-jartzaileek beren kabuz abiatu zuten ekimenak: "Konfinamendua hasi bezain pronto, astelehen horretan Unai Elizasuk idatzi zidan proposamena luzatuz. Horrela elkartu ginen Aitor Sarriegi, Aitor Mendiluze eta Julio Soto bertsolariak eta Elizasu gai-jartzailea. Ostiral horretan egin genuen lehen saioa, eta bertsoak inprobisatuak izan baziren, saioaren euskarri zen plataforma ia inprobisatuagoa izan zen. Azken unera arte teknikoki nahiko kaotikoa izan zen dena, baina entzuteko jende dezente konektatu zen, eta jarraitzeko asmoa hartu genuen. Ostiralero egin genuen saio bat, bertsolariak txandakatuz: denera hamar saiotik gora antolatu genituen eta 40tik gora aritu ginen bertsotan edo gai-jartzen". Maiatza erdira arte egin zituzten saio hauek, jendea kalera ateratzen hasi zen arte.

Galdetu diogu nola den ordenagailu aurrean eserita bertsotan aritzea: "Egia da hotza dela, norbera geldi egotea pantaila aurrean. Beste kantu-kideak ziren ikusten genituen aurpegi bakarrak, eta garbi genuen hori kontuan izan behar genuela, beste bertsolariei zer *feedback* ematen genien zaindu behar genuela". Bertsotan egiteko plazan izaten den tentsioa lortzen zuela azaldu digu: "Ohiko saio batzuetan baino tentsio handiagoa ere sentitu nuen, baina ezberdina. Konexioa etetearen ardura nirea balitz bezala sentitzen nuen, komunikazioa edozein unetan eten zite-

keenaren beldurra. Puntu surrealista bat ere bazuen, etxean ari ginelako kantari, eta abstraitzea eta kontzentratzea norberaren gaitasunaren esku zegoen. Gehiago kostatzen zitzaidan jaialdi estiloko saioetan kontzentratzea, librean etengabean kantatzea baino, naturalago egiten zen etxetik bertsotan aritzea libreko jario etengabe horretan".

Bertsolariek itxialdi zurrunean beste hamaika modu bilatu zituzten bertsoak helarazteko: bertso sortak kantatu eta sare sozialetan zabaldu, iluntzetako txalo-jotzeen garaian balkoitik kantatu, puntua jarri eta lagunari bidali honek erantzun zezan... eta hainbat irratik zuzeneko bertso saioak antolatu zituzten, irrati uhinez zabaltzeko.

Bertsozale Elkarteko Sustapen eragilea da Oier Iurramendi, eta azaldu du itxialdiko lehen asteak beren burua kokatzen eman zituztela elkartean. Eta ondoren erabaki zuten "antolatzaileei laguntzeko ahal zen guztia egitea, era horretan bertsolariei sostengua emango baikenien". Horretarako, bi ekimen jarri zituen martxan elkarteak apirilean: batetik, erresistentzia kutxa, "plazatik bizitzeko apustua egin zuten bertsolariei gutxieneko sostengu ekonomikoa eskaintze aldera". Bestetik, *Plaza Birsortzen* ekimena. Azken hau bada berritasun bat elkarte honen historian, Iurramendik azaldu duenez, izan ere, "Bertsozale Elkarteak ez ditu bertso plazak antolatzen. Baina egoera honetan, erabaki zen unea zela Bertsozale Elkarteak Lankurekin elkarlanean, zituen baliabideak plazari eskaintzeko. Bere egoitza den Villabonako Subijana Etxean bada areto bat, elkarteak badu ikus-entzunezkoetarako ekoizpen talde bat, eta diru poltsa bat bideratu zuen egitasmo honetara. Horrela hasi ginen astero bi saio antolatzen Villabonako areto horretan: bata *Bidaiak* deitu dioguna, emanaldi bereziz osatua, adibidez, gazteen bertso tramak, saio tematikoak, saio musikatuak, ikasleei zuzendutako saioak... eta bestetik, bertan behera geratutako plazetako saioak". Erandioko Euskaraldiko bertso bazkaria jarri du adibidetzat: "Gure lan-taldea eta baliabideak eskaini genizkien, eta horrela egin ahal izan zen bertso saio hori Villabonako aretoan, guk grabatu eta zuzenean emititu zena Erandiokoen webgunetik. Saioa Erandioko entzuleei zuzendutakoa izan zen, haiek jarritako gaiekin eta haiek aukeratutako aurkezlearekin". Saio hark arrakasta handia izan zuela azaldu du: 1.000 ikusletik gora izan zituen lehen lau egunetan, "normalean horrelako saio batek aurrez aurre 200 lagun izango lituzke". Saio haren arrakasta ikusita, beste hamar bat udaletxek eman zuten Bertsozale Elkartearekin elkarlanean *on-line* saioa antolatzeko urratsa.



XDZ

HIRU HANKA. Erreportaje honetarako elkarrizketatu ditugu Jone Uria bertsolaria, Oier Iurramendi Bertsozale Elkarteko Sustapen arduraduna eta Marta Arrizabala Lanku enpresako langilea.

> Jaialdi motako saioak eta formatu berezikoak suspertu dira. Baina ia ez da bertso bazkaririk eta libreko saiorik egin alarma egoera eten zenetik. Horrek dakar mota bateko bertsolariek askoz zorrotzago jasaten dutela saioen gabezia

Guztira 25 saiotik gora egin dituzte *Plaza Birsortzen* egitasmoaren barruan eta 60 bertsolarik eta musikarik hartu dute parte. Uriak kantatu zuen saio horietako batean, eta bakarka ordenagailu aurrean aritzearekin alderatuta, abantaila handiena kantu-kideak ondoan izatea izan zela dio: "Villabonako saiorako atera nintzen etxetik lehen aldiz, eta eskertu nuen. Bertsolariak elkarren ondoan egoteak beste sentsazio bat ematen du. Baina gogorrena eta hotzena bertsoen ostean txalorik ez egotea zen. Bertsotan egiterakoan eragiten du, badirudi azkarrago hasi behar duzula erantzuten, isiltasunera ez gaudelako ohituta. Kantu-kideen *feedback*arekin konformatu behar, baina pauso bat zen elkarren ondoan egotea eta gorputz osoa ikustea".

Iurramendik oroitu du babes neurri zorrotzak hartu zituztela saio horiek egiteko: "Bertsolariak ez ziren inoiz bi metro baino gertuago egoten elkarrengandik, ez zuten mikrofonoa partekatzen, kantatzen hasi arte maskarak jantzita zituzten... bagenekien bost laguneko grabazio taldea lanean aritu beharko zela denbora luzean eta bertsolari asko pasatuko zela bertatik, beraz, ezin genuen txantxetan ibili, neurriak ez hartzeak arriskua baitzuen langileren bat gaixotu eta denak etxean egon behar izatekoa, eta horrek esan nahiko luke ekimena bertan behera geratuko zela".

"NORMALTASUNARI" BULTZAKA


Alarma egoera eten zen eta kalean egoteko eta baldintzak betez gauzak antolatzeko aukera eman zieten agintariek herritarrei. Baina Agirrezabalak adierazi du garai hartan antolatzaileak "oso makal" zebiltzala, kultur ekitaldia antolatzeak baitzekarren osasuna babestearen ardura norberarengan hartzea: "Ikusi genuen antolatzailea ez zela animatzen ezer egitera, eta pentsatu genuen Bertsozale Elkarteak eta Lankuk elkarrekin saio bat antolatzea eta bideoz grabatzea, antolatzaileek ikus zezaten berme guztiekin egin daitekeela bertso saio bat". Ekainaren 5ean antolatu zuten saio hori, Villabonan, plaza irekian. Iurramendik azaldu du saio horretan protokolo guztiak aplikatu zituztela: "Bertsolariei harrera nola egin, maskara, garbitasuna... bestetik publikoan nola kokatu aulkiak, nola egin saio bat bi txandatan...". Halaxe egin zuten, bai, horretan

ere berritzailea izan zen Villabonakoa, bertsolariekin adostu ostean, saioa bi zatitan egitea erabaki baitzuten, ikusle-kopurua bikoizteko: 81 laguneko bi txanda egin zituzten eta bertsolariek 45 minutuko bi saio egin zituzten jarraian: "Horrela bermatu genuen ohiko jende kopuruak gozatu ahal izatea saioa. Hori guztia bideoz grabatu eta zabaldu egin genuen sareetan eta antolatzaileei bidali genien, ikus zezaten gauzak egin daitezkeela". Sustapen lan honek izan du bere fruitua, eta Agirrezabalak adierazi duenez, hainbat saio ari dira orain Lankutik lotzen.

JAIALDIAK ETA FORMATU BEREZIAK SUSPERTZEN, OTORDUETAKOAK ETA INFORMALAK ORAINDIK ZIU-N

Bertso plazek jaso duten kolpea itzela izan da, eta suspertzen doazen arren, oso urrun daude beste urteetako kopuruetatik: aurreko urteetako maiatz, ekain eta uztailetan 140-170 saio egiten ziren normalean hilabete bakoitzean. Honetan, maiatzean 25 saio egin dira guztira eta ekainean 30. Baina maiatzeko ia saio denak, 20 hain zuzen, bertsolariek beren ekimenez eta borondatez internet bidez egindakoak izan dira, eta antolatzaileek ordaindutako saio arruntak bost baino ez. Ekainean ordaindutakoak gehiago izan dira baina oraindik oso kopuru baxuan. Uztailean 60 bat aurreikusi dituzte. "Ari da errekuperatzen, baina oso mantso. Lau hilabetean 500 plazatik gora galdu direla ikusten dugu", jakinarazi du diagnostiko gogorra Iurramendik.

Agirrezabalak azaldu duenez, udal askoren hautua izan da herriko festak antolatu beharrean, uda kulturala egitea eta hainbat diziplinatako kultur ekitaldiak antolatzea. Bertsolaritza osasun bermeak betetzeko ekitaldi egingarrienetakoa da, Iurramendiren hitzetan: "Egunez egiteko egokia da, kanpoan edo barruan ikusle kopurua kontrolatu daiteke, ikusleak eserita egoten dira, oholtza gainetik bertsolariak estatiko aritzen dira... Neurriak errespetatzeko erraztasunak ditu". Baina mota bateko bertso saioak dira suspertu direnak: jaialdiak eta saio musikatuak. Aldiz, otorduen bueltan egiten diren saioak edo lagunarteko giroan egiten diren poteo eta libreko saioak oraindik lozorroan daude. Beraz, jaialdietan edo formatu berezietan aritzen den bertsolaria gehiago jardungo da aurtengo udan, eta geldialdiak bortitzago eragingo dio bertso bazkari eta afarietan aritzen den bertsolariari.



"ETXETIK ETXERA" on-line saioak egin zituzten konfinamendu garaiko ostiraletan, bertsolariek eta gai-jartzaileek beren ekimenez.

Agirrezabalak Lanku enpresatik harreman zuzena du antolatzaileekin, eta hauxe sumatu du: "Antolatzaileak bertako sortzaileez arduratuta sentitu ditut, bai herrikoez edo Euskal Herrikoez, eta udal asko saiatu dira udako eskaintza kulturala horiekin osatzen". Berriz gauzak antolatzeko gogoz sumatzen ditu, baina hori bai, "konpromisorik hartu gabe. Kontratu guztietan orain datorren klausula hauxe da: egoerak behartuta saioa bertan behera utzi behar bada, beste data bat adosten saiatuko gara. Baina inork ez du bere gain hartzen hitzartutako saio horren kostuaren zati bat ordaintzeko ardura. Data adostearena ere 'saiatuko gara' da, ez konpromiso irmoa".

ZIURGABETASUNA BERTSOLARIENTZAT ETA ELKARTEARENTZAT

Agirrezabalaren hitz horiek argi adierazi dute egungo egoeran bertsolariek ez dutela batere bermerik lotuta dituzten saio gutxi horietan kantatu ahal izango duten, eguna iritsitakoan. Asko kezkatzen du bertsolarien egoerak, bereziki bertsotatik bizitzeko hautua egin dutenek. Uriak zera gehitu du: "Oraingo egoerak ziurgabetasuna izugarri areagotu du, baina ziurgabetasuna ez da gauza berria, bertsolarien lana ziurgabea zen lehen ere: ez dakigu zenbat saio izango ditugun hilabete batzuk barru, are gutxiago hurrengo urtean. Honek balio beharko luke konturatzeko lehen ere zein baldintza prekariotan genbiltzan. Borroka egin beharko da bertsolarien eta orokorrean kulturgileen lana gutxieneko oinarri batez bermatzeko. Frantziako estatuan dagoen modura, urtean zehar jardun bat duela adierazten duenari, oinarri bat bermatuz". Gaur egun bertsotara jartzea "apustu egitearekin" lotzen dela adierazi du, eta ez lukeela horrela izan behar: "Hautu bat izan behar luke, ez arrisku bat. Bertsotatik bizi den gehiengoak baditu beste diru-iturri batzuk, badaezpada". Aurrera begira ziurgabetasuna areagotu egingo dela igartzen du: "Bertsolari asko gaude eta denon artean banatu beharreko plazen pastela asko txikituko da". Aurten udalek festetatik "diru dezente aurreztu dutela" uste du Agirrezabalak, baina gehiago kezkatzen du hurrengo urteko aurrekontuak. Uriak ere egin daitezkeen murrizketetan jarri du fokua: "Udalen aurrekontuetan murrizketak egiten badituzte, hauetako asko saiorik antolatu ezinda geratuko da, kultura saila ez delako azkena izango murrizketak jasotzen".

Pandemiak bertsolariei ekarri dien kinka larriak eraginda, eta etorkizunak itxaropenerako tarte handirik uzten ez duenez, Bertsozale Elkartea Eusko Jaurlaritzako Kultura sailarekin elkartu da: "Egoera honek gehiago bistarazi du sortzaileek bizi duten egoera zaurgarria. Bide horretan asko dago egiteko erakundeetatik. Eusko Jaurlaritzari eskatu diogu mahaian esertzea eta aztertu dezala zein ondorio izan dituen pandemiak sortzaileengan. Hortik abiatuta, etorkizunean haien jarduna babestu dezan", azaldu du Iurramendik. ●



LIBURUA

Irudimen erradikalaz





IZUAREN OSTEKO GOGOETA

EGILEA: SUSAN BUCK-MORSS
ITZULTZAILEA: PELLO AGIRRE SARASOLA

KATAKRAK, 2019

IBAI ATUTXA

Ematen du liburu-iruzkinen gurpil frenetikora berandu samar iritsi naizela aste honetakoarekin. Izan ere, bada urtebete jada Katakrakek Susan Buck-Morssen *Izuaren osteko gogoeta* argitaratu zuela. Alta bada, Buck-Morssen liburuak egiten du posible urgentziazko irakurketa bat; gaurkotasunik galtzen ez duena; agian oharkabean pasatu dena –agian, gurean, ez litzatekeena oharkabean pasatu behar–.

Irakurketa bat egiten du posible, nola esan, izan beharko genukeena bekokian tatuatuta. Horrela behintzat, espektro politikoan ezkerretara kokatzen garen "gu" anizkun honetako guztiok goizean esnatu eta gogoratuko genuke: ezkerreko teoria kritikoak irudimena behar du erdigunean. Horixe da *Izuaren osteko gogoeta* gurutzatzen duen xedea: jakitea "nola alda litekeen, eraginkortasunez, irudimen politikoa".

Ez da hau lehenengo idazkia irudimen eraldatzailea aldarrikatzen, ezta gutxiago ere. Tradizio luze berean hartzen dute parte adibidez, Marx eta Engelsek *Alderdi Komunistaren Manifestua*-ri 1872an eginiko hitzaurrearekin. 60ko hamarkadan Birminghameko Kultura Garaikideko Ikasketen Zentroak ardatz beraren inguruan eraldatu zuen pentsamendu kritikoa. Azkenik, baina ez azkena, Gayatri Chakraborty Spivaken lanak irudimen erradikalaren alde egiten du etengabe. Asko dira, Buck-Morssekin batera, irudimena, sormena eta imajinazioa ezkerreko teoria kritikoen erdigunean kokatzen dutenak, eta bazen garaia, ikuspuntu hori gaurkotasunez euskarara ekartzeko.

Modernitate mendebaldar eurozentrikoaren zapalkuntzak iraultzeko ez dira nahikoa estrategia mekanizistak. *Izuaren osteko gogoeta*-k zapalkuntza horiek iraultzeko esfera publiko eta kontrakultura globala eraikitzea proposatzen du. Horretarako behar da irudimen erradikala eta eraldatzailea: oraindik existitzen ez den zerbait eraikitzeko. Irudimen horren bila sortzen ditu zubiak islamismoarekin bezala iraganarekin. Ustez debekatutako eremuetara jotzen du, terrorismoaren eta nostalgiaren lurraldeetara. Emaitzak merezi du. ●



MUSIKA

Eremu idorrak



IVAN ZABALEGI DA NIRE TALDEAREN SORTZAILEA.



HEMERETZI
NIRE
BIDEHUTS, 2019

JOXI UBEDA GOIKOETXEA

Basamortua, eremu idorrak, lehorrak suma daitezke Nire-ren kantak entzuterakoan. Beroa eta hotza senti daiteke, aldi berean. Bakardadea, harremanen gazi-gezak, desioak, nahiak: "Eguzkia dardarka, bihotza izoztua" (*Basamortuan*), "Noizbait norbait maitatu al duzu? Noizbait norbaitek maitatu al zaitu?" (*You hate love*), "Larre zabalean zaldi bi, beraien gainean gure desioak" (*Zaldi bi*), "Garbitu ditzagun gure bekatuak lehenbailehen, berriro bekatu egiteko behin bat gehiago" (*Behin bat gehiago*).

Kantek transmititzen dituzten giroak intimoak dira, zirraragarriak. Rock doinu dotoreak dira, biziak, gordinak eta ilun samarrak. Erritmoak ez dira ez azkarrak, ezta geldoak ere. Aurreko diskoan (*Hamabost*, 2015) country kutsuko doinu goibelak landu zituen Nirek, eta disko honetan, berriz, garage kutsuko rock indartsua nabari da kantetan.

Diskoa ederra da. Ekoizpen lan oso ona egin dute, moldaketak ongi zainduta. Melodiak ederki jantzita daude gitarren marrazkiekin, eta beste zenbait zaratatxorekin eta xehetasunekin. Ahotsa ere ongi egokituta dago kantetara, kanta bakoitzak eskatzen duenera.

Nire, berez, Ivan Zabalegi (gitarra akustikoa, cigar box guitar, ahotsa, bateria) da. Lisabö taldean aritzen zen lehen, bateria jotzen. *Hemeretzi* lana osatzeko, lagun hauekin aritu da: Ander Zabalegi (bateria), Borja Toval (gitarra elektrikoa), Borja Iglesias (gitarra elektrikoa) eta Karlos Osinaga (grabazioa, nahasketak, ahotsak). Halaber, hitzak idazterakoan, Jon Rubioren eta Martxel Mariskalen laguntza izan du, eta diseinu lanak egiterakoan Ramon M. Zabalegirena eta Kakun Rubiorena. Nireren jendaurreko emanaldietan, Ivan bakarrik aritzen da, edo Ander Zabalegirekin eta Borja Tovalekin.

Nireren *Hemeretzi* diskoa, Bidehuts zigiluaren katalogoan dauden gainerako diskoak bezala, Bandcamp plataforman entzun daiteke (bandcamp.com/tag/bidehuts). Diskoak modu digitalean eros daitezke, Bandcampen, eta ohiko euskarri fisikoan ere bai, Bidehuts zigiluaren bidez (www.bidehuts.net). ●



Txertorik ezean, Anari

AMETS ARANGUREN

Pandemiarekin loturiko berri txarrek ez dituzte sano dauden herritarrak geldiarazi eta lepo bete dute zarauztarrek kiroldegia.

Adarra saria jasotzen ari zela ikusi nuen zuzenean abeslari azkoitiarra azken aldiz duela urte pare bat. Zarauzko Adarretatik jaialdian kantari uztailaren 19an. Modelo aretoko leihatilako ilarara hurbildu eta kalkuluak egiten hasi gara. 40 bat pertsona gure aurretik eta bakoitzak launa sarrera hartzen ahal badu... Uff txiripaz, baina bai, lortuta.

Sartu eta eseri gara. Ehunka jende eta beste horrenbeste oihalezko poltsa. Denak maskara kentzeko mezuaren zain. Baina ez. Off ahotsak ez digu baimenik eman. Atera da Anari. Sei dira gaur.

Bere kantetan ohikoak diren akorde segida sinple baina sakonekin hasi da kontzertua. Sei musikariek ezin hobe enpastatzen dituzte tinbre guztiak, grabaketa bailitzan, kanta zahar eta ez hain zaharrak tartekatzen dituzten artean. Buruak aurrera eta atzera, bonbo eta kaxaren erritmora. Gorputzen ordez, maskarak dantzan; ezpainen mugimenduak ezkutatu eta letrekin okertzeko lizentzia ematen dute.

Xabi Etxeberriren biolaren tinbre tuneatuak xarma berezia ematen dio kanta askori; instrumentua protagonista bihurtzeraino batzuetan. Eta sumatzen da oholtza gaineko taldekideen arteko benetako konplizitatea. Beso zabalik hartu dituzte entzuleek abesti guztiak, baina ezagunenekin orfeoi bilakatu da publikoa. Koro erraldoia.

"Askok erabaki zuen akatsarekin aurrera jarraitzea eta berriz ere EAJri botoa ematea", dio gaur *Autodefinitua* kantak. Txalo eta barre dezente. Inork ez dio ausardia politikoa ukatuko.

Auzobiografia bat ere kantatu digu. *Piromania "Yo amo Galicia"* mezua idatzirik zuen txiskeroaren jabeak egindakoaz mintzo da. *Hego haizeak* jotzean basoaren ertz banatan kandelatxoak jarri eta dena sutan ikustea maite zuen emakumeaz; nor bere buruarekiko infidelitateez, kontraesanez.

Tendentzia dugu, normala den bezala, kantak ateratzen diren momentukoak direla pentsatzekoa, baina ez. Zaharra, baina *ez nahi bezain zaharra* den kanta etorri da ondotik: *Amua*. Idatzi zuen momentuan ez zen kantatzen ausartu. Letra triste eta malenkoniatsua zela uste zuen Anarik, neska gazte talde batek hala ez zela azaldu zion arte. Han zeuden eta haiendako kanta. "Aupa Anari" oihukatu du bi urte eskas dituen neskatxak.

Ez duenetik nekez, baina duenetik ematen du Anarik; inongo zuhurkeriarik gabe. Sortu den parentesitik atera gara. Etengabeko irribarrearen ondorioz masail minduekin itzuli gara etxera. Autoko irratian koronabirusa da mintzagai. Txertorik ez dagoen artean, Anari. ●



EGILEA | **ANA ZAMBRANO**

Hitz gezidunak

Gaia: Bizkaiko kobazuloak

ALTXATU — PILOTAN JOKATZEKO TRESNA

ALE, BIHI — NAFARROAKO UDALERRIA

SASOIRA HELDUA

KANPORA! — HARAGIAREN MINTZA (ALDREBES)

ZAKURRA — NAFARROAKO IBAIA

UGAZABA — ZURA OSO ARINA DUEN ZUHAIXKA

DIMAN — ZERRENDA

OSAGAIA — MILILITRO

ELIZ HITZALDI — **KARRANTZAN (ARGAZKIAN)**

KONBEXU — URANIOAREN IKURRA

AZTERKETA MOTA — OSMIOAREN IKURRA

HEMEN DAGOENA

URREAREN IKURRA — **BERRIATUAN**

EUSKAL FONEMA — GOIKO ALDERANTZ

JANTZI LUZE ETA ZABALA

BIZKAIKO UDALERRIA — ERABAT, TXIT

LEHERGAI EZAGUNA — 510 ERROMATAR ZENBAKIZ

LITROA — BABILA

AZKEN BOKALA — ABAGUNEAK, AUKERAK

ERASORAKO TRESNA — EGUZKIA

NIHAUR (ALDREBES) — IRRITSU, ALAI

DAGO — ORDAINTZEKO BETEBEHAR

BAKARRA, BAKARRIK — BI GEHI BI

ENERGIAREN IKURRA

AUTONOMI ELKARTEA — AHOLKU

EUSKALTEGI SAREA

KONTATU ADITZAREN ERROA — MAGNESIOA

ATZIZKI DESTINATIBOA — LAZTU, ABERETU

LEKEITION — TONA

OBJEKTUAK

Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

		6		5	9		4	
	7		2	4	3			
						7	9	
		9					6	
1		3				9		8
	4					5		
	8	1						
			4	8	5		3	
	3		1	7		4		

5x5


ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Mingaina.
2. Material beltz.
3. Esku bakoitzean bost ditugu.
4. Geriza.
5. Larrua.

EBAZPENAK

5X5:
1. MIHIA
2. IKATZ
3. HATZA
4. ITZAL
5. AZALA

8	1	6	7	5	9	3	4	2
9	7	5	2	4	3	8	1	6
3	2	4	6	1	8	7	9	5
2	5	9	8	3	7	1	6	4
1	6	3	5	2	4	9	7	8
7	4	8	9	6	1	5	2	3
4	8	1	3	9	2	6	5	7
6	9	7	4	8	5	2	3	1
5	3	2	1	7	6	4	8	9



Iruña Cormenzana

ARTISTA



MIGRAZIOAZ ETA HERIOTZAZ

Iruña Cormenzana 1967ko martxoaren 25ean jaio zen Iruñean. 2001etik Irunberrin bizi da. Alaba baten eta seme baten ama da eta margogintza eta margo eskolak ematea du ogibide. Bere erakusketa guztietan bi elementu dira ezinbestekoak: margotzen duenarekin harreman pertsonala izan behar du (izan lagunak, izan ezagutu berriak ala izan pertsonaiak) eta lan guztiak toki jakin batean erakusteko pentsatzen ditu, ez du obra bat landu eta gero non erakutsi bilatzen.

"Berealdiko egitandiak bezala landu nuen, Egiptoko artea bezala"

Madril erdigunean, Neptunoko iturritik eta La Ingobernable zentro sozial okupatua egon zen eraikinetik gertu dago Medinaceliko Jesusen eliza. Kaputxinoen ordenaren eraikinaren kanpoalde osoa friso urdinkara erraldoiez jantzita egon da berrogeialdi osoan. Migrazioei buruzko nazioarteko jardunaldiak antolatu zituzten kaputxinoek, baina dena bertan behera geratu zen, agerian elementu bakarra: *Zurrunbilo* erakusketa erraldoia, Iruña Cormenzana (Iruñea, 1967) margolari nafarrak egina. Berarekin mintzatu gara.

HEDOI ETXARTE **IRUÑA CORMENZANA**

Ze harreman duzu eliz artearekin?

Dena kasualitatea izan zen. Egun batean Irunberriko erretorea Iruñeko Ziudadelan egin nuen erakusketa batera etorri zen. Areto ilun-ilun batean xake taularen itxurako lur bat jarri nuen eta Marie Antoinette erregina margotu nuen takoiekin, harro, urkamendira bidean. Gorputza goititua zeukan, bere buruan segurtasuna duen emakume batek bezala. 2009ko martxoan izan zen hori, bolborategian egin nuen *Argiantza* erakusketan.

Erretorea gaztea da, gustatu zitzaion. Jasokundeko parrokiako kapera izozkailu bat da. Egoteko txarra da, beroa eman niezaion nahi zuen. Debeku bakarra ezarri zidan: ez nitzala pertsonak margotu, bereziki ez nitzala emakumeak margotu eta are gutxiago takoiekin.

Ezagutu zintuen erakusketan margotu zenuen kontrakoa margotzeko eskatu zizun?

Bai. Onartu nuen. Eta etxetik ikusten ditudan paisaiak egitea pentsatu nuen: soroak eta muinoak. Baina orduan neuk ere baldintza bat jarri nion: ezingo zen inor sartu kaperara nik margotzen nuen bitartean, ez nuen nahi margoketa ikuskizun bihur zedila. Iritziz itotzen bazaituzte eragiten dute zure lanean. Azkenean bi gizon gihartsu margotu nituen: San Joan Batailatzailea eta Jesus. Lehenengo ganga beltzez margotu nuen eta bigarrena, eszenarena, urre-kolorekoa. Horrela, bisitariak urre-koloreko eremura pasatzean atea itxiko balitz bezala sentituko dute. Kaxatxo bat bezala geratu zen. Handik erakusketak espazio handietan egitera jauzi egin nuen. Esaterako Villa Arnagan, Kanbon. Kaperaren kontura Debatik hots egin zidaten, kalostrape bat egiteko. Ezagutzen duzu Debako fideikomisoa?

Ez.

Debako tipo batzuk dirutza egin zuten Ameriketan panama txanoak egiten. Ez zuten ondorengorik izan eta ondasunak Debako herriari utzi zizkioten, baldintza bakarrarekin: dirua kulturarako erabil zezatela.



HIRU KALEETAKO AZALERAK BATZEKO ZIRIMOLA ERRALDOIA MARGOTU ZUEN.

Horregatik, kalostrape bikain horretan hamaika gauza egiten dira udan, goi mailako kontzertuak. Abesbatzakoak eta bandakoak ezagutu nituen. Oso kantariak dira. Kalostrapeari beroa eman nion, oso berezia da, erle kabia dauka. Alemaniako beste kalostraperen batean ere badago, baina hemen inguruan ez da halakorik. Ohiz kanpokoa da. Kalostrape eder horretan sartu nuen gorria. Margotu nituen musikariak eta abeslariak. Hasi nintzen beste eskala batean lanean. Gero Iruñeko San Juan de Dios klinikan zentsuratuko zidaten murala egin nuen. Albiste hori Madrilera iritsi zen. Kaputxinoei gustatu egin zitzaien kentzeko agindu zidaten klinikako murala.

Haiek hots egin zizuten?

Bai. Ezagutu nahi ninduten. Pardoko beren komentura joan ginen. Itzel pasa genuen, kongregazioan onartu gintuzten. Humanistak dira, eskuzabalak, ongi sentitzen duzu zeure burua, solasaldia atsegina da, denetarik irakurtzen dute. Bazkaldu genituen dilistak eta haragi-bolak. Haien artean zegoen gizon oso zahar bat, 94 urtekoa, han dauka estudioa, deitzen da Antonio Oteiza. Maitemindu ninduen. Jorge Oteizaren anaia da.

Lehoiaren kaiolan sartu ninduten. Antoniok nire proiektua atsegin bazuen egingo nuen, bestela buelta etxera. Han hasi zen harremana. Nahi nuena proposa nezan esan zidaten. Ez nuen inoiz horrela lan egina. Beren ordenaren filosofia ezagutu nuen. Irunberrira buelta, koadro bat egin nuen. Lehenengo zirriborroan gorputzak egin nituen. Kaputxinoek helarazi zidaten ideiatik hasi nintzen: heriotzak funtzio bat dauka. Horregatik gorputz ederrak egin nituen, bizitza jario dute. Benjamin, Medinaceliko Jesusen elizako priorea, Irunberrira etorri zen koadroa ikustera. Esan zidan koadroa beretzat nahi zuela.

Madrilen kaputxinoek hamarnaka etorkin jasotzen dituzte. Ematen diete edonolako formazioa. Laguntzen diete aurrera segitzen. Han izan ginenean txarrantxa gurutzatu zuten pertsonak zeuden, Mediterraneoa txalupan pasatakoak. Beren markak erakusten zizkizuten, gorputz osoan zeuzkaten. Baina barre egiten zuten, oso giro ona zegoen, eta esaten zuten "hemen gaude" behin eta berriro, adierazteko heriotza atzean gelditu zela. Benjaminek esan zidan migrazioa landu nezala.

Nola lantzen duzu Mediterraneoko migrazioa erakustea?

Gure Mediterraneoa plazera eta dibertsioa da. Haientzat bukaera da, amaiera. Abandonuaren ideia egin zitzaidan erakargarria. Itotzear dagoenak erabakitzen duenean ezin duela gehiago. Pertsonak ulertzen duenean ezin duela bizitza eutsi, badoala.

Margolan handi bi egin nituen, izkina baterako. Eta esan zidaten ezetz, egiteko gehiago, baliatzeko eliza guztiaren kanpoaldea. Orduan erabaki nuen koadro bakoitzean pertsona bat egitea, bizitza bat, bakoitza bere istorioarekin. Baina guztiek azken erabakia partekatzea. Begiratzen badituzu oraindik ez dira hil. Bizitza hor dago. Nahi nuen Mediterraneoa margotu eta nahi nuen kaputxinoek heriotzari ematen dioten tokia erakutsi.

Urdinez egin nuen Letren auzoa oso gorrixka delako, adreilu asko dago. Batasuna eman nion erakusketari, trinkotasuna, zeren hiru kale ezberdinetatik ikusiko zen. Berealdiko egitandiak bezala landu nuen, Egiptoko artea bezala. ●



BIDALI ZURE HARRIKADAK: **BERANDUEGI@ARGIA.EUS**

Atez atekoaren kontra egin zuten kolektiboak koronabirusaz kutsatzeko eskubidearen alde mobilizatuko dira



"Hau jasanezina bihurtu da: etxetik atera gabe eduki gaituzte, orain maskara jantzi behar omen dugu... ez genuen minbiziaz hiltzeko aukeraren alde borrokatu orain COVID-19aren beldurrez bizitzeko", adierazi du Tolosaldea Txukun plataformak prentsa ohar baten bidez. Gipuzkoako hiriburu zaharrean bezala beste hainbat herritan, EAJk 2015eko hauteskundeak irabazi zituenetik desagertuta zeuden "herri mugimenduak" berriz aktibatu dira, koronabirusaz kutsatzeko eskubidearen alde. "Maskarak zikinak eta antiestetikoak" direla uste dute talde hauek, "inposizioa" dela horiek erabiltzera derrigortzea eta EH Bilduko Juan Karlos Izagirre kritikatu dute, oraindik oso ongi ulertzen ez ditugun arrazoiengatik. ●

SAREAN ARRANTZATUA

Pandemia honi buruzko datu enpirikoak



Menpeko perpausak





2020a "pozik" pasatzen ari dela dioen pertsona bakarra atxilotu du Ertzaintzak

Ez "ondo esan beharko", ez "hainbestean": Otxandioko Aintzane Pérezek bere Facebook orrian idatzi du 2020an "pozik" sentitzen dela. Ertzaintzaren Zerbitzu Iraunkor Prebentibo Autonomiko Integratu Orokorrak kasua ikertu du eta mezuak bigarren zentzurik ez daukala ziurtatu duenean, patruila bat bidali du 37 urteko bizkaitarra atxilotzera. Estefania Beltran de Heredia jardunekо Segurtasun sailburuak esplikatu duenez, Ertzaintzaren ohiko jardueren artean dago jendea oso alai ez sentitzea, baina koronabirusaren krisia hasi zenetik neurri zorrotzagoak hartu dituzte poza guztiz eragozteko: "Otxandion pozak berragerpen txiki bat izan du, baina egoera kontrolpean dago. Euskadiko biztanleak triste eta miserable senti daitezen lanean jarraituko dugu". ●

INPRENTA
Offset eta digitala

DISEINU GRAFIKOA

DISEINU EDITORIALA

antza
KOMUNIKAZIO **GRAFIKOA**

Txikitik eragiten
Komunitatea zaintzen
Bidea eraikitzen
Aurrera!



ALDIZKARIAK
ESKU-ORRIAK
KARTELAK
LIBURUAK
EGUTEGIAK
KATALOGOAK
AGENDAK
KOADERNOAK
KARPETAK
LOGOTIPOAK

www.antza.eus

Zirkuitu Ibilbidea 2, 20160
LASARTE-ORIA
Tel. 943 370 738 · info@antza.eus

ARGIA

Sasoi trumoitsu hauetan
inor ez dadila
ARGIArik gabe geratu

ALBOAN IZANGO GAITUZU



ARGIA txikitik eragiten
Komunitateak
komunitatea babesten du

ARGIA.EUS/EGINARGIAKOA